



argia

2015eko urriaren 4a | LXXVIII. urtea | 2.477 zenbakia | 3,90 euro

02477
917800150033

PROZESUA EZKERRERANTZ

**CUP BIHURTU DA GEHIENGO
INDEPENDENTISTAREN GILTZA**

**KONSTITUZIOA IDAZTEA ETA ESTATU
EGITURAK SORTZEA IZANGO DIRA
HURRENGO URRATSAK**

**BAIEZKO GARBIAK:
72 ESERLEKU ETA BOTOEN %47,86
EZEZKO GARBIAK:
52 ESERLEKU ETA BOTOEN %39,07**

Anna Gabriel Sabaté (CUP):

"Éz dago inor soberan, baina Mas ez da ezinbestekoa"



**Tot això amb la UE
no és possible!**



BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

3. argitaraldia



Gure kultura
iraultzen ari den
liburua

"Nik ere uste dut etorkizun hobea ez dela etorriko lehenbizi hartu eta gero emanda; eta gure auzolaneko ohiturak iraun dezan, komeni zaigula eman-hartuetan gehiago aritzea. Ni ere jakobito bihurtu ote naiz?"

**Mikel Irizar, GFAko Hizkuntza
Berdintasunerako zuzendaria**

"Baratzea bizitza izan daiteke guk geuk gauzatu zapalkuntza batzuei buelta emateko modua, baiki. Baratzetik kanpo ikasi ditugun beste alternatiba batzuen barruan txertatzerik ba ote dugun nuke gaur galdera: bizi ote dezakegun berri"

Danele Sarriugarte, idazlea

"Jakoba, konbentzitu egin nauzu. Liburuan esaten duzun bezala, baratzeak, lagunak bezala, denbora behar du, ez gehiegi, baina etengabe"

Mikel Garaizabal, enologoa

23 €

19,50 €
harpideentzat

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

 **argia**

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Azaleko argazkia:

ANC

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gai-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argaia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argaia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argaia.eus. Erredakzioa: kazeta@argaia.eus. Interneten: www.argaia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iama eta interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko urriaren 4a, 2.477. zenbakia

ASTEKO GAIA

FRONTE POPULARRA Ezkerraren batasunak bidea malkartsu.

JOSU CHUECA / 4

PERTSONAIA

ANDONI LUBAKI: «Argazkia ateratzen dudanean unean hustu arte negar egiteko eskatzen dit gorputzak». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

GIZARTEA Zahar-etxean haurreskola irekitzea, bizitza eraldatu dien esperientzia. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

IRITZIAREN LEIHOA

TOM HARDYREN INTIMITATEA JUNE FERNÁNDEZ / 16

INDEPENDENTZIARAKO PEDAGOGIA AINHOA LARRAÑAGA / 18

ADIBIDEZ, UR ARDOA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Seigarren urteko talaiatik... EDU ZELAIETA / 18

ZIRTAK Agur t'Erde Aroa. JOXERRA GARZIA / 20

BERTSO BERRIAK Harriak ez du begirik.

EKAITZ GOIKOETXEA ASURABARRENA / 21

ERDIKO KAIERA

INTERNET ARTXIBATEGI GISA Nahieran erabil daitekeen iturria? LANDER ARRETXEKA BEREZIARTUA / 23

ZINEMALDIA 2015 Aurtengo palmaresean zinema "glokala" garaile. GORKA BEREZIARTUA ETA MIKEL GARCIA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 30

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

EDURNE LARRAÑAGA: «Euskararen erabilera eskubidea da eta hori ez da inposatzen, bermatu egiten da».

MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 36

IRAILAK 27 KATALUNIAN Beste pauso bat independentziara bidean. LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 40

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 38

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 38

NET HURBIL Ana Belen Montes: *Los Cinco* kubatarrak benetan sei ziren. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

ASTEKO GAIA

FRONTE POPULARRA

Ezkerraren batasunak bidea malkartsu

1935ean, preso politikoaren amnistiaren eskaerak bultzatuta, ezkerreko koalizio zabal bat sortzeko habeak ezarri ziren Espainian. Fronte Popularrak gorabehera ugari izan zituen eratzeko eta bizirauteko. 80 urte geroago, antzeko mugimendua abian jarri nahian dabilzanek badute non begiratu, zer egin eta zer ez ikasteko.

| JOSU CHUECA |



1936ko otsailean
Fronte Popularrak
hauteskundeak irabazi
ondorengo manifestazio
jendetsua Madrilan.

AGA

SEKTORE HERRIKOIAK koalizio edo fronte batean elkartzea zaila da. Are gaitzagoa klase desberdinetako alderdi eta erakundeak badaude. Eta agintera iritsitakoan, bidea malakartsua izan ohi da, egitura bateratu horren partaideek dituzten helburu desberdinen arteko talkak haustura ekar baitezake. Dialektika berezi horretan, eskumaren presioak eta errepresioak askotan eragiten du herri mailan ohikoa den aniztasun politikoak batasunerantz jotzea. Zortzi hamarkada igaro diren arren, eskuindarren artean oraindik izua sorrarazten duen Fronte Popularra dugu horren adibide.

Nazioarteko ezkerren estrategia

Jakina denez, politika ildo horrek Europako bi herrialdetan arrakasta itzela izan zuen XX. mendean. Hala, Frantzia eta Espainia abagune berean zeuden 1936ko udaberrian. Estatu espainiarrean, urte horretako otsailaren 16ko hauteskundeen ondorioz, agintera iritsi ziren Fronte Popularrean elkarturik zihozten komunistak, sozialistak eta erakunde errepublikarrak (Izquierda Republicana eta Unión Republicana). Frantziakoan berriz, hilabete batzuk geroago, 1936ko ekainean, Matignonera iritsi ziren antzeko erakunde eta indar politikoak, Léon Blum sozialista buru zutela.

Hilabete batzuk lehenago oraindik indarrean zegoen 1917az geroztik ezkertiarren artean sortutako komunisten eta sozialisten arteko zatiketa. Baina 1935ean III. Internazionalaren jarraitzaileek sozialistekiko jarrera nabarmen aldatu zuten. “Sozialfaxista” gisa jotzetik kideztat hartzera igaro ziren, Internazional Komunistak VII. Nazioarteko Biltzarrean hartutako erabakiei esker. Aldi berean, aliantzak egiteko unean alderdi burgesak ere onartu zituzten komunistek. Europan gorantz zihozan faxismoari aurre egiteko modu bakarra zen hura.

Komintern delakoak 1935eko udan egin zuen biltzar ezagun hura Moskun, eta bertan aliantza politikoekiko estrategia aldaketa handia onetsi zuen. Georgi Dimitrovek aurkeztutako txostenak alderdi komunistak akuilatu zituen, sozialistekin eta talde burgesekin itunak burutu zituzten faxismoari aurre egiteko. Iraultza lortzeko helburua albo batean utzi eta ordura arte bidezkotzat jotzen zituzten errebolta-ekimenak atzeratzea proposatu zuen; oraindik indarrean zeuden demokraziak defenditu behar zirela zioen txostengile bulgariarrak. Bide batez, erakunde komunistak egoera demokratiko horietan indartuko lirake.

Buruzagi komunistek uste zuten, Alemanian nazismoaren hazkunde aroan sozialdemokratek eta komunistek beraien artean izandako liskarrek, Hitlerren gorakada eta aginte hartzea lagundu zutela, eta beste modu bateko politikari ekin behar zitzaizola iritzi zioten. Stalinek Sobietar Batasunaren isolamendua saihestu nahi zuen. Nazioartean hitzarmenak erraztu asmoz –Frantziarekin, esate baterako– beste lurraldeetan iraultza ez bultzatzea erabaki zuen. Jakina, horrek ohiko errebindikazioak moteldu zituen eta defentsa nazionala eta tokian tokiko alderdi burgesekin aliantzak egitea onetsi.

Hortik aurrera ez zen “klasea klasearen aurka” leloa ardatz zuen politika zuzen eta erradikalik egin behar; alderdi burgesen artean kideak bilatu eta adostasun programatikoak lortu behar ziren, akordio horiek apalak eta oinarrian ahulak izanik ere.

Ezkerrean hainbat buru, zenbat aburu

Espainian, 1934ko urriko matxinadaren porrotak zampaketa handia ekarri zuen alderdi eta langileen artera. Baina errepresio horrek erraztu egin zuen desberdinen arteko elkar ulertzea. Urte horretako urria baino lehenagotik Langile Batasuna eratuta zegoen, Asturiasko UHP (Anaia Langileen Batasuna) elkargoa ere hor zegoen –CNT erakunde anarkista izan zen bertako kide esanguratsuen–, eta testuinguru horretan, kartzeletako presoek dei egin zuten amnistia lortzeko mugimendu bateratua sor zedin. Horiek guztiak urrats garrantzitsuak izan ziren Fronte Popularra eratzeko. Garai haietan gisa bereko hiru esperientzia nabarmendu ziren: Frantziakoa eta Espainiakoa 1936an eta Txilekoa 1938an.

Hiruetan hauteskundeen bidez iritsi ziren ezkertiarrek boterera. Frantzian, PCF alderdi komunistak indartsuak bat egin zuen SFIO sozialistarekin, eta geroago, 1935eko uztailaren 14an, Parti Radicale elkartu zitzaizen “Rassemblement Populaire” izena hartuta.

Espainiako Estatuan hauteskundeen bezperan lortu zuten batasuna hainbat alderdik, eta “Frente Popular” deitu zioten koalizioari. Hain izan zen arrakastatsua izena, geroztik antzeko elkargo guztiei halaxe deitu zitzaizela. Ezker-muturreko alderdiek eta sindikatuek ere bat egin zuten koalizioarekin. Katalunian, esaterako, “Front d’Esquerres” deiturikoak aniztasun politiko oso zabala zuen, herrialde hartako alderdi ezkertiarren eremua askoz aberatsagoa zelako. Alderdi nagusia zen Esquerra Republicanarekin batera laketu

1934ko urriko matxinadaren porrotak zampaketa handia ekarri zuen alderdi eta langileen artera, baina errepresio horrek erraztu egin zuen desberdinen arteko elkar ulertzea

Frente de Guadalupe,
 donde las presas en momentos
 hambre y privaciones
 las sostuvimos con valor
 luchando por la causa
 hijos de la revolución
 en el frente Guadalupe
 en sus venas la reacción
 amalladas, amalladas que
 en guerrillas, malos tratos
 que soportas
 amallas, amalladas
 que tenemos que acabar
 el despotismo y la tiranía
 se impusieron contra los
 es preciso que los proletarios
 los vengamos con la revolución
 Camaradas proletarios
 adelante.
 Camaradas proletarios



ziren Moskuko diziplinatik aparte ari ziren talde komunista erradikalak –POUM delakoa kasu– edota ortodoxiari emana zegoen PCC alderdia.

Euskal Herrian, berriz, estatu mailan ari ziren indar ezkertiarrez gain, ANV-EAEk zekarren nolabaiteko ezberdintasuna. Galizian ere, Rodriguez Castelaok gidaturiko Partido Galleguista zen berezitasun bakarra.

Lehenik, alderdi desberdinen artean bat egite azkarrak izan ziren: gazteria komunistak eta sozialistak JSU (Gazteri Sozialista Bateria) sortu zuten; Joaquín Maurinen Bloc Obrero i Camperol eta Andreu Ninen Izquierda Comunistak lehen aipaturiko POUM alderdia; PCCK, PCPk eta Kataluniako PSOEn adarrak, PSUC ezaguna... Batasunaren haizea indartsu zebilen ezkertiarren artean. Erakunde errepublikanoei dagokienez, antzeko bilakaera antzeman liteke Izquierda Republicana eta Unión Republicana osatzerako orduan, bata Manuel Azañaren zuzendaritzapean, bestea Diego Martinezek gidatuta.

Fronte Popularra osatu zutenean, talde horiek guztiak prest agertu ziren atzerki zabal eta komun baten abarazio aritzeko: Errepublika eta demokrazia berreskuratzea behar ziren. Azaña eta bere errepublikar jarraitzaileek, II. Errepublikako lehen biurteko politika erreformista berrabia-

Goian, Guadalupeko
 gotorlekutik preso
 iraultzaile batek
 bidalitako poesia,
 eta 1936ko
 hauteskunde afixa
 amnistia
 aldarrikatuz.
 Behean, Nafarroako
 UGTren
 Trabajadores
 egunkaria;
 sindikatuak amnistia
 eskatu zuen iraultza
 armen bidez egin
 nahi izan zuten
 presoentzat.



tzea zuten xede. Langile erakundeek eta ezkertiarrek, berriz, oren gainetik amnistia erdietsi nahi zuten lehenbailehen.

1936ko urtarrilaren 15ean sinatu zuten Fronte Popularraren programa ez zen bate-re iraultzailea. Eta irabaziz gero, gainera, Gobernu bera errepublikarren eskuetan uzteko konpromisoa hartu zuten sozialistek eta komunistek, parlamentutik beren laguntza bermatuz. Frantziar aldiz, Léon Blum buruzagi sozialista bihurtu zen lehendakari, eta talde errepublikarrek –bereziki erradikalak– bigarren leheran geratu behar izan ziren. Espainiakoan, Manuel Azaña eta Santiago Casares Quiroga errepublika-

rrak jardun zuten agintean gerra hasi arte, inolako ministro sozialistarik gabe. Baina 1936ko uztailean altxamendua gertatu eta gutxira, frankistek Toledo hartu eta Madril begien bistan zutela, Francisco Largo Caballero sozialista jarri zuen buru Fronte Popularraren gobernu errepublikarrak.

Kinka larrian, batasuna lagun

Espainian 1936an gertaturiko bira ideologikoa ulertzeko, funtsezkoa da jakitea 1933 amaieratik II. Errepublikak desbideratze handia izan zuela. Urte horretan eta hurrengoan, José María Gil Roblesen CEDA koalizio eskuindarrak eta Alejandro Lerrouxen Alderdi Erradikalak parlamentarien gehiengoa eskuratu eta gobernu erreakzionarioak osatu zituzten. Hala, 1931tik aurrera Errepublikak abiarazitako erreforma eta proiektu aurrerakoi esanguratsuenak (nekazal erreforma, langileen aldeko legeak, autonomi estatutuen garapena...) bertan behera utzi zituzten.

Alderdi sozialistak, UGTk eta gazte sozialisten elkarteak 1934ko urrian sustaturiko iraultzak porrot egin ondoren, sekulako errepresioa jasan zuten Gobernuaren partetik. Erreboltak oihartzun handiena izan zuen tokietan, hau da, Asturiasen, Katalunian eta Euskal Herrian, urriko egun horietan izandako hildakoez gain, atxiloteta eta espetxeratzeko masiboak izan ziren. Estatu osoan atxilotutako 30.000 lagunetik 2.200 Euskal Herrikoak ziren.

Urriko mobilizazioak bultzatu zituzten sektore politikoan buruzagi askok ere

espetxealdiak edo erbestea jasan zituzten. Katalunian, esaterako, Generalitat osoa kartzelaratu zuten, baita Lluís Companys presidentea bera ere, eta egoera horretan egon ziren 1936ko amnistia iritsi arte. Greba komiteen partaide esanguratsuenak, Francisco Largo Caballero, Santiago Carrillo, Ricardo Zabalza eta Julian Zugazagoitia, Madrilen espetxeratu zituzten. Euskal Herrian ere beste batzuek patu bera izan zuten: Toribio Echebarria, Julián Prieto, Miguel Escobar, Ramón Rubial, Juan Nadal... denak kartzelan.

Fronte Popularraren programa ez zen batere iraultzailea, eta irabaziz gero, gainera, Gobernua errepublikarren esku uzteko konpromisoa hartu zuten sozialistek eta komunistek

Amnistiaren aldarria, Fronte Popularraren euskarria

Espetxealdi luze eta masiboek are ondorio latzagoak ekarri zituzten. Ordura arte indarrean zegoen egitura errepresiboa eraldatu egin zen eta 1936ko Gerran izango zituen ezaugarri krudel berak hartu zituen. Hala, Rafael Aizpun justizia ministro zela, 1936ko uztailaz geroztik indarrean izango ziren indarkeria praxiak aurreratu zituzten.

Atxilotze masiboen ondorioz, ohiko espetxez gain, gotorleku militarrek eta barku kar-

tzalak hasi ziren erabiltzen, 1934ko urriko mobilizazioak oraindik amatatu gabe zeudenean. Bilboko itsasadarrean hainbat barkuren sotoetan ehunka preso pilatu zituzten hainbat hilabetez –*Altuna Mendi* izan zen horietako bat–.

Halaber, Larrinaga, Ondarreta eta Iruñeko kartzelak txiki geratu zirenez, Guadalupe, San Markos eta San Cristobalgotorlekuak ere kartzela bihurtu zituzten urrian bertan. Toki ilun horiek, espetxe probintziaren osagarri izatetik Espainiako espetxe egiturako kartzela nagusi izatera igaro ziren egun batetik bestera. San Cristobalgoak 1934ko azarotik aurrera 700 preso baino gehiago izan zituen. 1936ko Gerrarekin etorri zen aro errepresibo tamalgarriaren aurrekari zuzena izan zen hura.


Mendi tontorretan kokaturiko espetxe berri horiek ez zeuden inolaz ere atonduta jendea gizalegez eta duintasunez biltzeko. San Cristobalen ziegak lur azpian zeuden, patioko mailara irekitzen ziren leihotxo bakar batekin. Patioak txikiegiak ziren hara eramandako jende andanarentzat. Oheak ere oso eskas, eta askok lurtean egin behar izaten zuten lo.



**BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA
EGIN HARPIDETZA**

☎ 943 371 545 • harpidetza@argia.eus • www.argia.eus/harpidetza

argia



Preso atxabaldarrak Iruñeko San Cristobalgo gotorlekutik irten ostean 1936an. Gerra Zibileko praxi errepresiboaren aurrekaria izan ziren presondegi bihurturiko gotorleku ilunok. Eskuinean, amnistia dekretua.

Espetxe politika Erdi Arora itzuli zela zirudien satortegi anker horiekin.

Erakunde eta aldizkari ezkertiarrek preso-en bizi baldintzak salatu zituzten behin eta berriz. Presoekiko laguntza indartu eta elkartasun sareak sortu zituzten, elikagaiak, tabakoa, arropak eta abar eramateko. Elkartasun lanetan emakumeek izandako parte hartzea eta rola ezinbestekoak izan ziren, askok ongi oroitzen duen moduan. Josefi-na Guerendiainek bere idazlan autobiografikoan zioenez: “Bilerak egiten genituen eta UGTko langileen artean dirua biltzen genuen. Asteazkenetan, astelehenean, ostiraletan aukera genuen bisita egiteko ‘gorriei’. Guk tabako xehatuaren paketea prestatzen genuen. Beste batzuek ajoarriero eltzeren bat, besteentzat haragi gisatua eta ogia. Ardoa ezin genuen sartu. Presoak ikustera joaten ginenean arropa hartzen genuen nire amak eta lixibatzaile batzuek garbitu zezaten”.

Presoen bizi baldintzak salatzeaz gain, espetxe berezi horien desagerpena eskatu eta amnistiaren aldarrikapena ere eraman zuten lehen maila politikora. Egundoko azkartasunarekin egiten ari ziren epaiketetan agindutako heriotza zigorrek ere suspertu zituzten presoan aldeko ekimenak. Mobilizazio horiei esker hainbat buruzagi patu hilgarri horretatik libratu zen. Baina preso segitu zuten beste zenbaitek ez zuten zori bera izan. Kartzeleta-

San Cristobalen 1935eko urrian Luis León preso asturiarra hil zen tuberkulosiak jota. Hurrengo egunean Iruñean langileek egindako lanuztea 1934ko urrikoaren parekoa izan zen

ko bizi baldintzek eta gaixotasunek, errepre-sioak sortutako sufrimendua areagotu baino ez zuten egin, eta herritarren erantzuna ere tamainakoa izan zen. San Cristobalen, esate baterako, 1935eko urrian Luis León preso asturiarra hil zen tuberkulosiak jota, eta horren ondorioz Iruñean langileek egindako lanuzteak 1934ko urrian egindakoaren antza handia hartu zuen.

CEDaren eta Alderdi Errepublikar Erradikalaren *Biurteko Beltza*ren amaiera antzema-tan hasia zegoen. Gero eta oihartzun handia-goa izaten ari zen amnistiaren aldeko kanpainak bat egin zuten 1936ko hasieran egin ziren hauteskundeetako leloekin. Ez da harritzekoa, beraz, errebin-dikazio hori izatea Fronte Popularraren oinarri eta helbu-ru nagusia. Ezta lehen eskaintza programatikoa lortua izatea ere. Otsailaren 21ean, ezkertia-rrek hauteskundeak irabazi eta bost egunetara, Espainiako kartzelak ireki zituzten, Puerto de Santa Mariatik, Larrinagara,

Santoñatik San Cristobalera. II. Errepublika-ko lehen egunetan bezala, 1936ko amnistiak preso politiko guztiak kaleratu zituen festa giroan.

Ez zekiten bost hilabete eskas geroago, hustutako kartzela horiek berriro preso-z lepo beteko zituztenik, zeintzuk eta 1934ko erre-bolta odolez eta espetxez zanpatu zuten berek. Fronte Popularrak osatutako gobernu errerepublikarra ez zen gauza izan zetorren matxinada militarra antzemateko, are gutxia-go hari aurre egiteko. Hala, askok 1934an ezagututako gotorleku-kartzela anker horie-tarako bidea hartu zuen berriz ere. ■

EMAN EUSKARA ELKARRI

Probatuz gero gustatuko zaizu

Egin dezakegu gure artean, lagunekin, kalean edo parkean

Zergatik ez hasi jolas honekin?
Barruan duzun hori ez utzi geldirik!

JARRI

MINGAINA

DANTZAN

barruan duzun
hori ez utzi
geldirik!

Mintzalagunean gustura egingo
nuke zurekin

Sustatzaileak



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

Babesleak



HEO



URUMEA EUSKALTEGIA

«Argazkia ateratzen dudanean hustu arte negar egiteko eskatzen dit gorputzak»

“Entregatu nizkizun armak eta zuloak non neuzkan aitortu...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Fotokazetaria.

Fotokazetaria izateak lege batzuk onartzea dakar: ezin duzu argazkitan ateratzen duzunaren testuingurua manipulatu, ezin duzu ez ezer ezabatu ez ezer erantsi, subjektuarekin hitz egitea dagokizu, argazki oinak zehaztea... Ikuspegi propioak gidatutako zintzotasun ariketa da. Testu bat idazterakoan, izenondoak hautatzen dituzu, nondik eta nola ekin erabakitzen, esapideen artean aukeratzen. Parean eta buruan dudanari zentzu bat emanez, gauza bera egiten dut nik argazkiekin. Argazkilaritzari historikoki egia eraren indarra aitortu zaio, aurrean duguna izozteko gaitasuna, baina ez, argazkilaritza ez da egia. Egia kopuru bat dauka, egia faktore bat, baina argazki baten atzean beti dago ikuspuntu bakar bat. Nik erabakitzen dut non zer enfokatu, nik erabakitzen dut noiz egin klik. Ni naiz makina tekniko bati aginduak ematen dizkiona. Argazkilaritza objektiborik ez dago, testu objektiborik ez dagoen gisan. Karretea objektiboa dela? Kodak edo Fuji ala kolorea edo zuri-beltza hautatzen duzun momentutik markatzen duzu ikuspegia, eta gainera, egun photoshoparekin egin daitekeen guztia egin daiteke laborategian. Analogikoak zein digitalak izan, argazki guztiak dira subjektiboak. Hala, ukituak gure izenondoak dira.

Non dago sinesgarritasuna?

Zintzotasunean. Beti defendatu dut argazkilaritza subjektiboa dela. Beti esaten dut nik hautatu dudala zer enfokatu eta noiz egin klik, baina argazki horri ez diodala ez ezer kendu, ez ezer erantsi. Gauza bat da nire begien aurrean gertatu dena eta nik helarazi nahi

dudan mezua bestea. Zintzotasun osoz egiten dut lan, zintzotasun osoz heldu nahi dut jendearengana, eta argazkilaritza objektiboa ez dela jakin arren, erabateko zintzotasun horri esker ematen dio jendeak sinesgarritasuna nire lanari. Arraroa da, argazkiak baino manipulazio gehiago onartzen ditu testuak baina albisteek kutsu objektiboa mantentzen dute oraindik. Argazkilariorik, aldiz, etengabe borrokatu behar dugu gure sinesgarritasunaren alde, eta hori argazkilaritza subjektiboa eta gure zintzotasuna aldarrikatuta egiten da. Argazki bat zuri-beltzean aterata badu esan nahi dudana indartzen duen estetika bat delako da, ez munda zuri-beltzean ikusten dudalako.

Zer da argazki on bat?

Argazki on bat begietatik sartu eta buruan iltzatzen den irudi bat da. Gure burmuinak ez ditu bideo sekuentziak gogoratzen, irudi kateak dira tatuatuta geratzen zaizkigunak. Robert Capa-ren milizianoaren argazkia aipatzen badizut berehala etortzen zaizu irudia gogora. Gure baitan oihartzuna duten irudiak

NORTASUN AGIRIA

Andoni Lubaki. 1982an Urretxun sortutako fotokazetaria. Saharan, Libian, Irak-en, Aljerian, Sirian... ibili da lanean, Associated Press eta Vice News agentziekin kolaboratuz, eta bere argazkiak, *The New York Times*, *The Guardian*, *The Washington Post*, *Garan* eta ARGIA argitaratu dira. 2013an, Alepon bahituta egon zen. Urte hartako Chris Hondros sari nagusia eta Pictures of the Year Internationalen bigarren saria eskuratu zituen.





“Ni ez noa frontera zaurituak artatu edo tiroketa bat badago ospa egiteko. Nire lanak ez luke ezertarako balioko”. Argazkiak Lubakik Siriako Alepon ateratakoak dira.

oroitzen ditugu, gudan zerbait pizten duten txinparta bat daukatenak. Horregatik da sentimendua komunikatzeko bidea. Argazki bat ateratzen dudanero, ikusten dudanarekin zein argazki hori ikusiko dutenekin enpatizatu behar dut. Ezin dut ahaztu gure jendartean irudiarekiko dugun jokaera. Inoiz hegazkin bat ikusi ez duen Amazoniako tribu bati hegazkin baten argazkia erakusten badiot ez du zuk bezala erreakzionatuko. Ez da gauza bera hilotz baten argazkia haur bati edo heldu

bati erakustea. Argazkietan kamera hau eskuetan agertzeak ez dauka esan-nahi bera argazki munduko batentzat edo publiko orokorarentzat. Kodearen jabe izan behar naiz, ezin dut kultura hori erantzi. Horregatik, ez duzu inoiz argazki on bat jendarte osoarentzat egiten, jendartearen zati batentzat baizik, zu parte zaren jendartearentzat.

Hilotzak aurrean, odol usaina bazterretan, tirohotsak non-nahi... Halakoetan ez al da enpatia baino gehiago behar argazkiak ateratzeko?

Ni ez noa frontera zaurituak artatu edo tiroketa bat badago ospa egiteko. Nire lanak ez luke ezertarako balioko. Senari kontra egitea dagokit, burua hotz mantendu eta nire begibistan gertatzen ari dena islatzea. “Zertara etorri naiz hona?” bezalako gogoetak aurrez egin behar dira. Badakit gure jendartean hilotzak makilatuta eta hil-kutxetan agertzen direla. Badakit lurrian sakabanatutako gorpu zikinek krak egingo dutela gudan, eta zergatik ukatu, talka horren bila nabil. Enpatiaz mintzo naizenean, garbi dago ezin dudala hilotz batekin enpatizatu, baina bai argazkia ikusiko duenarekin. Enpatiatik iristen da gogoetara. Horregatik erabiltzen dut zuri-beltza odola dagoenetan ere. Ez dut odolaren gorria ikusterik nahi. Nahiago dut koloreak dakarren informazio sorta kendu eta momentuko espresioa azpimarratu.

Zure begiek odola gorri ikusten dute, ordea. Nola kudeatzen da hori?

Momentuz ondo daramat. Hona itzultzean pribilegiatua sentitzen naiz. Ederra da etxetik tabernara atzera begiratu gabe etorri ahal izatea. Familia eta lagunak babes handia dut, gainera. Hori bai, ez diet zer pairatu eta zer bizi izan dudana esaten, alde umoretsua soilik kontatzen diet. Ezkutu bat da hori niretzat. Beldur naiz, ordea, ofizioan jarraituz gero, esperientziak nire baitan berun zatiak bezala gordeko ote ditudan. Beruna oso material pisutsua da, gure gorputzak arnasten du baina ez da kanporatzeko gai. Hala, pixkanaka, hortzak erortzen zaizkizu, giltzurrunetatik eta gibeletik berun hori kanporatu ezin duzun unea iristen da eta... hil egiten zara. Lankideek frontean bizi izandakoa beruna dela esaten didate, hastapenean ez zaituela kaltetzen, baina kanporatu ezina datorkizunean pott egiten duzula. Oraingoan, nire amesgaiztoak izaten ditut, izerdi hotzez blai esnatu izan naiz, baina berehala pasatzen zait. Hala ere, argazkia ateratzen dudana guran hustu arte negar egiteko eskatzen dit gorputzak. Zotinka hasi arte isurtzen ditut malkoak. Hori da beruna kanporatzeko nire arma. Horri esker, hona iritsi eta barre baizik ez dut egiten.

Argazki on bat ateratzeko edozertarako prest zaude?


Denak ez du balio. Argazki bat egiteagatik hilko nautela jakingo banu ez nuke aterako. Heriotzari beldurra diot, sufrimenduari izua. Argazki batek ez du nire bizia edo nire sufrimendua balio. Hori jakinda jarraitzen dut egiten dudana egiten. Saharan, manifestazio batean argazkiak ateratzen ari nintzela, nire aurrean zihoan 18 urteko gazte bati mina bat lehertu zitzaiolako hasi nintzen lan honetan. Haragi sarraski bat zen hanka hura. Laguntzera hurbildu nintzaion, ateratako argazkiak *Gara*-n zein *Paris Match*-en argitaratu ziren eta Danimarkako GKE batek ikusi zituen. Argitalpen horietako sosekin Danimarkarako txartela ordaindu nion gazteari bertan sendatu zezaten, eta gaur da eguna Dajlako kanpamentuan oinez dabilena. Sinetsi egin nuen argazkiei esker zerbait lortu nezakeela. Orduetik hona, ordea, ez dut beste ezer lortu, baina ez dut esperantza galtzen. Badakit nire argazki batek ez duela gerrarik etengo, baina pertsona bakar baten sufrimendua arintzeko balio badu, ni prest. Horregatik ere saiatzen naiz ahalik eta zintzoen informatzen. Ez naiz gerratik bizi, ez naiz parakaidista.

Ez zara gerratik bizi, ez zara parakaidista, baina gerran bahitu zintuzten.

Hasieran ez genekien zeintzuk ziren. Zuk dakizuna da bahituta zaudela eta horrelako tokietan bahiketak luze jotzeaz gain gehiengutan ez direla ondo bukatzen. Nortzuk diren eta zer nahi duten jakiten duzunean larritu egiten zara, dena bukatu dela pasatzen zaizu burutik, arrisku bat ez duzula behar bezala baloratu, aurreregi joan zarela. Zorionez, ordea, azkar eta ondo bukatu zen gurea. 12 ordu izan ziren. Dena den, ez zait horri buruz hitz egitea gustatzen. Nire guraso eta ingurukoei ez diet alde krudel eta estresantea kontatu. Anekdotak dibertigarriak baino ez: txizagurea genuenean egiten genuena, estropezu egin nueneko, ondokoaren zurrunkak... Gainontzekoa ez dut kontatu nahi, ez luke ezer ekarriko. Bahiketak inguruan neukan lasto pila kendu eta aurrean nituen benetako loreak ikusten lagundu dit. Frontera itzultzeko esperientzia eman dit, argazki batek ez duela nire bizia, askatasuna edo osasuna merezi oroitarazi. Orain eskuineko begiarekin enfokatzen dut baina ez dut ezkerrekoa ixten.


Ni naiz argazki batzuk ikustean begi biak ixten dituen. Non dago pornografiaren muga?

Hilotzez, tripez eta odolez jositako argazkiak ateratzen ditut, bertan nagoelako, eta batez ere, zentsura gero datorrelako. Haur bat tri-



VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Gozatu euskaraz liburategietan!...

- **ALDABE**
Beldurrezko efektu bereziak sortzeko makillajea
Amets Mtz. de Heredita (lantegia)
Urriak 30, 18:00; 9-12 urte
Liburu egoitzak: literaturaren eraikuntza
Unai Elorriaga
Urriak 14; 19:00. Helduak
- **ARIZNABARRA**
Mamuak
Zurrumurru (ipuin kontalaria)
Urriak 21, 18:00; 4-8 urte
- **ARRIAGA**
Tximeletrak airera
Xabier Olaso (errezitaldia)
Urriak 15, 18:00; 3-10 urte
- **HEGOALDE**
Pirata garrapataren abenturak
Patata Tropikala (antzerkia)
Urriak 28, 18:00; 4-8 urte
- **IBAIONDO**
Herriko azken lamia
Sustraibarri (ipuin kontalaria)
Urriak 31, 11:30; 5-8 urte
- **JUDIMENDI**
John Brown-en bost lumak
Kantari-On (ipuin kontaketa musikatua)
Urriak 31, 11:30; 5-7 urte
- **PILAR**
Tximeletrak airera
Xabier Olaso (errezitaldia)
Urriak 27, 18:00; 3-10 urte
- **SALBURUA**
Amonaren sutondoko ipuinak
Behinola (txotxongiloak)
Urriak 20, 18:00; 4-9 urte

Oihaneder euskararen etxea

Ilunabarrean dantzan
Bafolk eta euskal dantzak
Urriak 9; 20:00-22:00

Aitzina Folk jaialdia
Bitartean. Kontzertua
Urriak 10; 20:00-22:00

Sortegia
Sormen ikastaroak: soinu-ekipoak, komikia, moda, ahozko kontalaritza
Urriaren 20tik aurrera

Hitza adina mintzo
Hizkuntza gutxituei buruzko zikloa
Galiziera: Isaac Xubin eta Txerra Rodriguez
Urriak 21; 19:00


SES kontzertuan	Eskailerapeko soinuak
Urriak 22; 19:00	Antton Aranburu
	Urriak 29; 19:30

Principal antzokia
Kreditua, Ttanttaka teatroa. Urriak 21; 20:30
Muxua, Tanttaka teatroa. Urriak 29; 20:30

Gasteizko mintzalaguna
Izena emateko epea: urriak 1-21

Hauxe da despedida. Oskorri
Aitzina folk. Mendizorrotzeko kiroldegia
Urriak 17; 20:00

Maite duzun hura, euskarazi!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



pak airean agertzeak zer ekartzen dio nire lanari? Ezer ez, morbo hutsa da, indarkeria pornografikoa, eta argazkien zilegitasunaz galdetzera narama. Alepon atera ditudan argazkietan hilotz gutxi ageri direla esaten dit jendeak. Frankotiratzaileen etorbidean hilotz ustelduak klikatu ditudala erantzuten diet nik. Hor testuinguru bat dago, ordea: morteroek zibilak ere hiltzen dituzte eta hilotzak ezin erretiratuta dabilta. Zenbat aldiz ikusi ditugu Gaza-ko umeak bururik gabe, hilotz? Nire ustez hor ez dago ekarpenik, biolentzia hutsa da, ez nik adierazi nahi dudana. Libian ateratako argazki batzuk hain dira gogorak ez dizkiedala inori erakutsi. Errealitatea ezkutatzea leporatzen didate, baina nik ez dut errealitatearen zati hori agertu nahi. Gerran bonbak lehertu eta sarraski humanoak gertatzen direla suposatzen da, ez dago esplikatu beharrik. Anabasa da gerra, bortizkeria anabasa. Bertan egonda ere, oso zaila da jendearen goxotasunetik krudelkeriarainoko eraldaketa ulertzea. Horregatik diot gatazka guztiak ez direla gerrate, baina gerrate guztiak direla gatazka. Noiz hasten da gerra? Noiz bukatzen? Jugoslaviako gerra bukatu da? Hemen oraindik gerra zibileko kontuez ari gara hizketan. Nik ez dakit nire osaba bat non dagoen. Zer da hori gerrate baten ondoriozko gatazka ez bada?

Gatazka batzuk besteak baino agerikoagoak dira, alta. Nork erabakitzen du zer den albiste? Medio handiek. Ez dut uste Amerikako Estatu Batuek edo Europar Batasunak zuzenean medioetara gai-ordena bidaltzen dutenik, baina gure ongizatea eta eguneroko erosoa kolpatzen duten gertaerak dira albiste. Estatu Batuak Iraken zeudenean eguneroko hitz egiten zen horri buruz. Joan zirenean, hildako kopu-

AZKEN HITZA

Sariak

“Interes zaku bat da dena. *Atlanta photojournalism*-eko urte bateko palmaresa hartzen duzu eta ohartzen zara hautagai guztiak Associated Press (AP)-eko argazkiak zirela, epaileak AP-koak zirelako. Kasualitatez, *The New York Times*-eko bi argazki dira sarituak, eta AP eta *The New York Times*ek harreman oso estua dute. Hurrengo urtean gauza bera France Press-ekin. Zergatik ez du Pulitzer saria Somalian lanean ari den argazkilari afrikar batek irabazten? Ni Chris Hondros eta Pictures of the Year sarietan saritua izan naiz, baina nik ez nuen argazkirik aurkeztu, agentziak baizik. Are gehiago, ez nago konforme agentziak aurkeztu zituen argazkiekin. Sarrionandiak ezin hobeto azaldu zuen: sariak masoneria kontuak dira”.

rua bikoiztu egin zen, baina albistegietan arrastorik ez. Oraintsu arte Sirian baino hildako gehiago zegoen Iraken, baina Siria zen notizia. Zergatik Siria? Gune estrategikoa delako, goxoki handi bat gure agintarientzat. Orain Siria entzun eta errefuxiatuak etortzen zaizkigu gogora, baina noiz hasi gara errefuxiatuez hitz egiten? Greziara iritsi direnean, gure ongizatea eta erosotasuna kolokan sentitu ditugunean. Nork daki orain Europara baino askoz errefuxiatu gehiago iristen dela urtero Hegoafrikara edo Boli Kostara?

...

Negozio bat da dena. Agentzia batek ez du sekula Boli Kostara inor bidaliko. Badaki “hori guri bost!” erantzungo diotela medioek. Egongo da kazetari bat hori guztia jasotzen ari dena, baina oso esparru mugatua izango du, ekonomikoki sekulako zailtasunak... Ekonomiari erreparatzea eta ardi izatea bereizi behar ditugu, ordea. Ardi izateari uzteko garaia da. Jakina Europara ihesi datozen errefuxiatuen istorioa kontatu behar dugula, baina nork daki ezer Mozambiqueko ikatzaren exilioaz? Ikatza ateratzeko estatu oso bat ari dira mugitzen, jendea zabortegetara kondenatzen dute, baina guk ikatza nahi dugunez ez da inon horren berri ageri. Ni kuriositateak mugitzen nau. Medio batek gutxieneko soldata ziurtatuko balit ezkontzak eta abarrak utzi eta hegan joango nintzateke ezkutuko istorio horiek jorraztera. Baina ez da posible, ez dut horretarako prest dagoen mediorik ezagutzen. Hala ere, ez nuke agentziekin orain arte bezala kolaboratu nahi. Badakit horrek ate asko itxiko dizkidala, *The New York Times*-eko azalak bukatu direla, baina lan hau bokaziotzat duginontzat ez da zereginik falta. ■

Zahar-etxean haurreskola irekitzea, bizitza eraldatu dien esperientzia

Ume eta zaharren arteko harremanak goxoak dira, batzuetan deserosoak, bestetan umoretsuak, “beti ere hunkigarriak eta hain benetakoak!”. Zahar-etxe batean ireki duten haurreskolaz dokumentala egiten ari den Evan Briggsen hitzak dira.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

400 ADINEKOTIK GORA hartzen dituen Seattleko (AEB) zahar-etxe batean, astero bost egunez umeak eta zaharrak elkartzen dira Belaunaldiarteko Ikasketa Zentroa deituriko haurreskolan. Abestea, dantzatzea, margotzea, ipuinetan murgiltzea, janaria prestatzea, jolastea edo besterik gabe elkarrekin aritzea dira euren eguneroko jarduerak.

Belaunaldi arteko halako esperientziak denentzat dira onuragarriak: adinekoak biziberritu egiten dira, autoestimua hobetzen dute eta umeen alaitasuna eta barrea kutsatzen zaie. Zaharren esperientziatik ere ikasten dute haurrek, baita beharra duten zaharrei lagunduz ere. Maitasun handia arnasten da Seattleko zahar-etxean, dokumentalgileen hitzetan.

“Gizarte segregatua gara, adinekoen jakinduria galtzen ari gara”

“Dokumentala errodatzek balio izan dit ikusteko zeinen gizarte segregatua bilakatu garen”, dio Evan Briggsek. Zaharrekin eta zahartzaroarekin dugun harreman disfuntzionalaz gogoetatu nahi izan du zinegileak: “Zer nolako balore sistema dugu, adin batek aurrera jendeak lekuri ez izateko gizar-



Adinekoak biziberritu egiten dira, autoestimua hobetzen dute eta umeen alaitasuna eta barrea kutsatzen zaie.

tean? Jakinduria eta esperientzia handia dago adinekoengan eta hori guztia galtzen ari gara”. Adinekoen %43 sozialki isolatuta bizi da AEBetan, bakardadeari, depresioari eta gainbehera fisiko eta mentalari lotuta.

Briggsek ikasturte bat eman du dokumentala errodatzeko, finantzazioa lortzeko crowdfunding kanpaina arrakastatsua egin du eta 2016an estreinatuko du emaitza: *Present Perfect*. ■

Ogiaren egia

Ogi biologikoak
Harri errotan
xehetutako
irinarekin
egindako
ogiak

Galparsoro
OKINDEGIA

Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

almis

Software-inplementazioa, proiektu-zorroa hainbat metodologia erabiliz kudeatzeko (Scrum, kate kritikoa, PMBOK, Phase-Gate...)

Obispo Otadui, 25 • Oñati (Gipuzkoa)
www.almis.com



June Fernández



KAZETARIA

Tom Hardyren intimitatea

CINEMANÍA zinema aldizkariak Tom Hardy aktoreak, *Mad Max*eko protagonistak, prentsaurreko batean LGTB aldizkari bateko kazetari batekin izandako tirabiraren bideo bat eskegi du. Hau izan zen euren arteko elkarrizketa:

– Kazetaria: Pelikulan [*Legend*] zure pertsonaia, Ronnie, bere sexualitatearen inguruko jarrera oso irekia du [bisexuala da]. Iraganean emandako elkarrizketen arabera, zure sexualitateak anbiguoagoa dirudi ordea. Pertsona ospetsuek euren sexualitateari buruz hitz egitea zaila dela esango zenuke?

– Tom Hardy: Zer demostreri buruz ari zara?

– K.: Orain dela urte batzuk *Attitude* aldizkarian izan zenuen elkarrizketari buruz [gizonekin sexu harremanak izan zituela esaten zuen, baina ez dela gustukoen duena].

– T.H.: Baina zein da zure galdera?

– K.: Ea uste duzun, ospetsuentzat euren sexualitateari buruz hitz egitea zaila den.

– T.H.: [Ironia doinuz] Ez dut uste ospetsuentzat euren sexualitateari buruz hitz egitea zaila denik. Nire sexualitateari buruz galdetzen ari zataizkit?

– K.: Noski.

– T.H.: Zergatik? [kazetariari erantzuten utzi gabe] Eskerrik asko.

tsonaia bisexuala da eta bera ere bere zaletasunei buruz ari izan da hedabideetan. Gainera, Toronton Ellen Page bere neskalagunarekin alfonbra gorrian agertu izana albiste izan zen.

– Ospetsuentzat erraza balitz euren sexualitateari buruz hitz egitea, “armairutik atera” esakerak zentzua galduko luke eta Page ez zen albiste izango. Erantzun horrek LGTB artistekiko elkartasun urria adierazten du.

– Sexualitatea ez da gai intimoa. Heterosexualentzat zeharo publikoa da nor maite duten, nor desiratzen duten, zein familia eredu eraikitzen duten. Arlo sexualekitoak garrantzi handia du eta heterossexuala ez izateagatik sekretuak gordetzen eta hitzak neurtzen ibili behar izana indarkeria era bat da.

– Kazetari berberak Page, Evan Rachel Wood eta Susan Sarandon aktoreak elkarrizketatu zituen eta hirurek jarrera jatorra izan zuten, armairuei, bifobiari buruz edota genero rolei buruz gustura hitz egin zuten. James Francok, ordea, aurreko batean gay kulturari buruzko galdera bat arbitrarioa zela esan zuen eta ez zekiela zer erantzun. Zergatik Franco eta Hardy ez dira horrelako galderak lasaitasunez erantzuteko gai? Homofobiak gizonen generoaren polizia bezala funtzionatzen duelako. Gizonek bere gizotasuna etengabe frogatu behar dute, marikoia izatearen susmoan ez jartzeko. Hori da maskulinitasun hegemonikoaren urrezko legea.

*Cinemanía*ko albistean diote kazetariak aktorea “estutu” nahi zuela, marikoi izatea, pentsaera matxistaren arabera, sasi gizona, kasik emakumea izatea baita. Hardyk bere ospea aprobetxatu zezakeen sexu askatasunaren eta aniztasunaren alde egiteko; artista gay, lesbiana, bisexual eta transexualen adorea txalotzeko; erreferente anitzen beharra onartzeko, (Andrea Momoitiori irakurri diodan metaforari jarraituz) zinema heterosexualen ispilu baita. Hardyren erreakzio ospina ikusita, badirudi hau guztia ez duela ulertu, ezta homofobiaren mamua astindu ere. Tira, Hardy, ez estutu, aurkituko ditugu zu baino ispilu ederragoak. ■

Pikarako Facebook orrialdean bideoa partekatu genuen eta 657 “atsegin dut” jaso zituen. Komentario gehienek aktorea txalotzen zuten: inori ez zaiola inporta norekin oheratzen den. Niri, ordea, ez zitzaidan erreakzio hori batere gustatu

Pikarako Facebook orrialdean bideoa partekatu genuen eta 657 atsegin dut jaso zituen. Komentario gehienek aktorea txalotzen zuten: inori ez zaiola inporta norekin oheratzen den. Niri, ordea, ez zitzaidan erreakzio hori batere gustatu.

Hona hemen nire argudioak:

– Testuinguru argi bat dago: kazetaria LGTB aldizkari batekoa da, Hardyren per-

ANDDE SAINTE-MARIE PSFren ZERRENDAN

LISTA BATERATUAN NOA,
SOZIALISTA EZ DIREN
ABERTZALEEKIN



LAPSUS LINGUAE OTE?

EZ!

EZ DA GU BAINO NAZIONALISTA HOBERIK!
ETA SOZIALISTAK, NEHOIZ EZ IZAN !!!





AMAIA TXINTXURRETA

Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ♦

Independentziarako pedagogia

MIRESMENEZ eta arreta handiz ari gara jarraitzen Euskal Herritik Kataluniako prozesua. Ez dakigu zer gertatuko den; ez dakigu erabakitze eskubidearen estrategia benetan den eraginkorra independentzia lortzeko eta ikustear dago, Kataluniak espainiar inperialismoa garaitzea lortuko duen ala ez. Seguruena asko dira Katalunian independentziaren aldeko prozesua hain aurrera joan izanaren arrazoiak edo gakoak. Euskal Herriko independentzia irrikaz bizi duen edozeinek, sarritan egingo du galdera hau: “Zer gertatu da Katalunian halako abiadura hartzeko?”. “Zer ez da gertatzen Euskal Herrian horren motel joateko?”. Irailaren 27rako hamasei egun falta zirela ospatu zen Diada eta bertan egoteko aukera izan dut. Katalunia ametsa gauzatzeko unean dagoen herria dela esan daiteke eta gauza asko esan eta azpimarratu daitezkeen arren, bi kontu aipatu nahiko nituzke: herri-tarrek islatzen duten poza batetik eta egoera honetara iristeko egin den pedagogia, bestetik. Aurten, Via Lliurekoek lelo hauen modukoak bultzatu zituzten ekitaldi nagusian zehar: *“Via lliure: a la democr cia; al m n; a la sostenibilitat; a la justicia social; a la diversitat; a la solidaritat; a la igualtat; a l’equilibri territorial; a la educaci n; a la cultura”*.

Katalunia eta Euskal Herria ez dira alderagarriak, baina euskaldunak otzandu gara. Independentziarako bidea piztu beharra dago eta horretarako ezinbestekoa da independentziarako pedagogia

Eta hori guztia independentziaren bidez. Modu sinple eta argian independentziak dakartzan onurak azaltzen dituzte esaldiok. Modu grafikoan adierazten dute, Kataluniari –eta edozein estatutik gabeko nazio-ri– euren burua gobernatzeak dakartzkion onurak.

Hedabide publikoek zein pribatuek eta beste hainbat eragilek independentziaren aldeko jarrera esplizitu edo inplizitua adierazten dute euren jardunetan. Europara bidali duten ordezkariak esana du, Europak Katalunia estatu gisa onartuko duela, baldin eta herritarren gehiengoak baiezkoa ematen badu; eta, hori ere, modu argian komunikatu dute.

Katalanek gurera begiratu izan dute sarritan eta orain gu gara begirada Kataluniatik kendu ezinik gabiltzanak. Ez, ezin dira bi herrialdeak alderatu; ez dira alderagarriak. Baina, otzandu gara euskaldunak. Independentziarako bidea piztu beharra dago eta horretarako ezinbestekoa da

independentziarako pedagogia. Bi argudio ildo sendotan oinarrituz: argudio historikoa batetik eta guk geuk determinatzeko boterea izateak dakarren abantaila bestetik. Euskal Herriak independentzia behar du bizi irauteko. Eufemismoak albo batera laga behar dira eta lotsarik gabe pedagogiari ekin. ■

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Seigarren urteko talaiatik...

ARI NAIZ: sei urte daramatzat eskolak ematen unibertsitateko Lehen Mailako lehen lauhilekoan, karreraren hasi-hasieran, Haur Hezkuntzako Graduan Gasteizko Irakasle Eskolan. Oso une berezia da bigarren hezkuntzatik datozen ikasleentzat, hau da, haietako gehienentzat, unibertsitatean sartzeak, era globalean adierazteko, aldaketa kultural handia baitakar. Hori dela-eta, ikasleak esparru berrira hobeki egokitze laguntza espezifikoa ematen saiatzen gara, haien iguripenak arakatuz bidenabar.

Talaia polita da ikusteko gazteak, urdu-

ritasunak urduritasun, ilusioz beteak etortzen direla urtero Hegoaldeko lau herrialdeetatik. Nolanahi ere, beste paisaia batzuk ere ikusteko balio du talaia honek. Esaterako, ahozko euskara batuak ez duela ospe onik ikasle euskalkidunen artean: herriko hizkera alboratu gabe, graduan zehar ahoz eta estandarrean ere gaitasuna agertu beharko dutela iragartzean, batuaren pedagogia egin beharra suertatu izan zait azken sei urteotan.

Hauxe da galdera talaiatik, lagunok: zergatik ekartzen dute gazteek ahozko batuaren kontrako jarrera? ■



Jose Ignazio Ansorena

◆ TXISTULARIA

Adibidez, ur ardoa

HAURRAK GINELARIK, egunero bazkaltzeko garaian ur ardoa jartzen ziguten basoan: bi zentimetro ardo eta ura ertzeraino. Ez gara denak alkoholiko atera ezta guztiz tontoak ere. Baina egun eskandalua litzateke.

Adibidez, jolas askotan *matea* ematen genion elkarri. Alegia, hutsa egindakoak hobe zuen ziztu batean jolastokitik alde egitea. Bertan geratu bitartean beste lagun guztiek egurtzeko eskubidea zutelako. Kupidarik gabe egiten genuen. Egun, ordea, erreformatorio-rako atea zabalik genuke.

Ez dut maite “gure garaiak” aipatzean soilik haur edo gazte sasoi izatea gogoan. Bizi garen bitarteko guztiak dira gure garaiak eta, osasuna dudan bitartean, gerra ematen jarraitzeko asmotan nago.

Arbuiatzen dut garai haiek egungoak baino hobeak zireneko burutapena. Badut, ordea, errezeloa hainbat arlotan, basakeria batzuk ekiditearren, sozие-

tatean inozokeria aldera errazegi lerratzen ari garela azken urteetan.

* * *

Lagun pedagogo batek, bere lanaz, *pedaboboa* dela esaten du. Adibidez, maiz aipatzen du horren argigarri: haurrentzako merkatuan salgai dauden ikuskizun *pedagogiko*, deituraz, gehienek txarrera hezten dituztela gure txikiak. Izugarrizko soinua bolumen ozena erabiltzen, esaterako. Kontu antipedagogikoagorik!

Solidaritate publikoa eskatzeko ugaltu den eredu hainbat bide beretik. Halako gaixotasunari laguntzeko dirua bildu nahi eta, adibidez, denak berdez pintatu behar geure buruak, ipurtzuloan arrosa jarri, argazkia egin eta sare sozialetan hedatu.

Aurrenik humanitatearekin izan behar solidario. Pertsonen adimenarekin ere bai. Bestela helburuak (diru batzuk biltzea kasu) bitartekoak zilegitzen dituela pentsatzea bezala da. Eta bitartekoak *babuak* direnean, babukerietara beste inora ez dago iristerik.

* * *

Adibidez, orain gutxi ikusi dugu Siriako iheslarien arazoa. Hildako umearen argazkiak edo hungariar kazetari *malaputaren* irudiek eragin handi goa izan dute, aurreko urte osoko informazioak baino. Zoritxarrez, kea bezala desagertuko da kezka soziala ere.

Azti ibili beharra dago. Asmo onenez zabalduta-koak kaltegarri eta beti prest dauden orojaleen mesede bihur daitezkeelako. Adibidez, oraintxe esan du Frantzisko Aita Santuak: “Ez zaie ideiei zerbitzatzen, pertsoneri baizik”. Ederra. Baina pertsoneri ongi zerbitzatzeko, ideia egokiak behar dira. ■

Lagun pedagogo batek, bere lanaz, “pedaboboa” dela esaten du. Adibidez, maiz aipatzen du horren argigarri: haurrentzako merkatuan salgai dauden ikuskizun “pedagogiko”, deituraz, gehienek txarrera hezten dituztela gure txikiak. Izugarrizko soinua bolumen ozena erabiltzen esaterako. Kontu antipedagogikoagorik!

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko, Geure modura.



www.bizkaia.net



Joxerra Garzia

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Agur t'Erdi Aroa

BETELANA zer den azaltzeko, andre-jaunok, nekez aurkituko duzue adibide hoberik, egunotan bazterrrak (tira, euskararen txokotxoak) astindu (tira, zipriztindu) dituen gure ereserki arranditsuaren hitzena baino: “Agur jaunak, jaunak agur / agur t'erdi”.

Puskaz mamitsuagoa da agur banatze huts horren osteko puntua: “Denok Jainkoak / eiñak gire, / zuek eta / bai gu ere” (sic aipuak oro, orain artekoak eta bai gerokoak ere). Berdintasun aldarrikapen nabarmena da hori, dudarik gabe, nahiz ez dakigun jainkoak berdin egindako horietan andreak ere sartzen diren, ez baitira aipatu ere egiten (tira, garuna mahaspasa bihurtu arte zuketuta, “zuek eta” hori izan liteke andreak, zeharka bada ere, aintzat hartzeko estrategia halako bat, gu gizonok andre jendeari grazioski egindako oparia).

EHUren ikasurte hasierako ekitaldian piztu zen eztabaida. Ekitaldi arranditsu haren mailara-ko ez du noski edozein kantuk balio, eta ereserki hori aukeratu zuen EHUko abesbatzak (edo goragokoren batek).

Eta? Urtean zientoka ekitaldian kantatzen da *Agur jaunak*, eta ez da deus gertatzen. Kontua da, ordea, abesbatzak ez zuela kantuaren ohiko bertsoia erabili, okasiorako propio aldatutako hitzak kantatu baitzituen. Aldaketa hori egiteko “iradokizuna”, antza, goitik etorri omen zitzaion zuzendari jaunari. Nolanahi ere, aldaketa horrek eragin du, hedabide eta sare sozialetan, hasieran aipatutako ika-mika.

Funtsean, betiko auzia da: zeri eman lehentasuna, tradizioari ala giza eskubideei? Hori baita kontua, bai *Agur jaunak* kantuaren kasuan, bai Irun eta Hondarribiko alardeenean, edo zezenketa eta neska nerabeen ablazioenean ere.

Iñaki Anasagasti jeltzale amorrutuak adibideratzen du tradizioa gurtearen aldekoen jarrera: “Nortzuk

dira Goirizelaia errektorea edo ekimen hori bultzatu dutenak euskal herritarren parte baten historia aldatzeko?”. Berdin galde genezake besteok, amorrua irentsita, ea euskal herritarren zein partek ezarri zizkigun gainerakooi *Agur jaunak* eta *Gora ta Gora* ereserkiak, besteak (asko eta oso) beste.

Anasagastirenaz oso bestelakoa da Anjel Lertxundiren ikuspegia: gizarteak aspaldion aurrera pauso nabarmenak egin dituenek emakumeen eskubideetan eta laikotasunean, aurrerapen horiek plazan beren isla izateari primeran deritzo Lertxundik (nik ere bai, jakina), eta unibertsitatearen jokabidea txalotzen du, “ibilian ikasi duguna –jaunak eta andreak denok berdinak eginak gara– Unibertsitateak natural-natural kantatu eta ofizialdu” duelako (horretan ere bat nator ni).

Unibertsitateak hori berezko egitekoa duela dio gero idazle oriotar zarauztartuak: “Horretarako baitago, besteak beste: aldaketak egiaztatu eta sendotzeko”.


Hori ere horrela da, bai (tira, hala behar luke, behintzat), baina horretan ez naiz Anjel bezain baikorra. Nahi nuke izatea, baina unibertsitate barrutik ezagutzen

dut, eta nago oraingo “Agur jaunak ta andreak” hori areago dela politikoki polit izan nahiak eragindakoa, gizartearen “aldaketak egiaztatu eta sendotzeko” ahalegin benazkoa baino.

Euskal gizarteko ezinikus, istilu eta gatazkak arrazoiaren bidez gaingitzen laguntzea ere unibertsitatearen berezko egitekoa dela esango nuke, baina batekoz bestera da hori, euskal gatazka antonomasikoa bere

gaiztoenean zegoen garaian nik ikusi dudanaren arabera.

Aukeran, unibertsitatean jauntxo (tira, eta andretxo) gehiegitxo ote dagoen, hori da nire susmoa, hemeretzi urteko eskarmen-tuan oinarritua. Eta, kantuak kantu, hori horrela den bitartean, nekez aterako da agur t'Erdi Arotik. ■



Antton Olariaga

Harriak ez du begirik

1

Aritzen nintzen garaian
administrari lanetan
txin-txin hotsa zen nagusi
nire galtza barrenetan.
Orain denbora orrazten
tematzen naiz gehienetan:
Erreka erreka al da
urik ez dakarrenetan?
Igandeak zer egiten
ote du astelehenetan?
ta antzeko esaldiak
idazten ditut trenetan...
Denok ez dugu koadratzen
mundu borobil honetan.



**Ekaitz
Goikoetxea
Asurabarrena**



6

Gaztetan iraultzailea
nintzen eta ze arraio!
Bidea dela borroka
idatzi nuen soraio;
krisiak iltzatutako
gurutzearen karraio,
gaur horma arraildu hari
begira egon natzaio.
Bezperan hilda ezin da
biharamunean jαιο,
helmugetara heltzeko
egin arren hainbat saio,
biderik ez duenari
borroka gelditzen zaio.

2

Murritzeta izeneko
trumoi en eta tximisten
denboraleari zeinek
ez dio grifoa ixten?
Maiz pentsatzen dut “laguntzak
eman beharko ditizten”,
baina itxaropenari
ez zaio izarrik pizten.
BEZ-a ta zergak ez dira
soldaten neurrian jaisten,
hilabete bukaerei
luzexko diet irizten,
otsailean ere ez da
nahi ordurako iristen.

4

Negua udazkenetik
ezin dugunez aldendu,
askoren egutegiak
ditu hamabi abendu;
zoriona biluzteko
sentimenduz sentimendu,
denbora gure nahieran
erabili ahal bagendu!
Joan denari burlaize,
datorrenari lausengu,
nahiz eta bihar-etziko
izpien miran gauden gu,
geroaren etorrera
orainak atzeratzen du.

7

Erasoak eraso ta
ofentsibak ofentsiba,
kalea da irabazi
beharreko lehen partida;
horregatik hurbildu naiz
gaur ere plaza erdira,
gorbatadunak aurrean,
kazetariak begira...
eskuak amorruari
eman nahi dio kabida,
urtetan pilatutako
mina gorpuzten ari da,
harriak ez du begirik,
begiak harritzen dira.

3

Zertara datoz hainbeste
itxura eta antzezte?
Zertara “gorantza goaz
ta lasai egon zaitezte”?
Gosea egarri bada,
euria eguzki eske,
heriotza jolasean
zilbor-hestez zilbor-heste...
Lepo gehiegik egiten
du bere buruaz beste,
bizirauteko sufritu
behar denean hainbeste,
perfektuak adizkiak
bakarrik izan daitezke.

5

Hipotekak ainguratu
gintuen hondo-hondoan,
zorria kitatu ezinik
gabilta urte mordoan;
bankuak *ultimatum-a*
eman zigunez lehengoan,
senarra, ni eta gure
seme-alabak gogoan
Stop Desahucios-ekoak
izan ditugu ondoan,
hilabeteko arnasa
lortu dugu oraingoan,
baina ez dakit hurrengorik
izango den hurrengoan.

8

Hegoak iparririk gabe,
hegorik gabe iparra,
iragan urrun batean
izoztu zait irrifarra.
Gero ta lausoagoa
denez ostertzeko marra,
onena oheratzea
izango dut ttrri-ttarra.
Betozkit izar-uxoak,
betorkit ilunabarra!
Loa da ameslarion
euskarri sendo bakarra:
dena argi ikusteko
begiak itxi beharra.

Doinua: ETaren su-etenetik.

* Irailaren 4an banatu zen Zarauzko XXXI. Basarri Bertsopaper Sariko sorta irabazlea.

ERDIKO KAIERA

INTERNET ARTXIBATEGI GISA

Nahieran erabil daitekeen iturria?

Sarean han eta hemen aurkitzen ditugun eduki gehienak, enpresa pribatu erraldoiek kudeatutako plataformetan daude. Euren baldintzapean. Badira beste alternatibak hala ere, EITBren Nahieran plataforma esaterako. Biltegi digital publikoen beharraz mintzatu gara sortzaile duen Iñako Gurrutzagarekin. Oraindik tabua den gaiaz ere hitz egin digu: edukien berrerabilpenaz.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



OHITU GARA sarean zernahi bilatu eta aurkitzera. Telesailak, abestiak, irudiak... Ohitu gara, baita ere, guk geuk sortutako edukiak zabaltzera bertan. Amaigabea dirudien iturria bilakatu da. Baina eduki horiek biltzen dituzten plataforma gehientsuenak (Youtube, Facebook, Instagram...) enpresa pribatuen esku daude. Ondorioz, baita ikus-entzuzko, argazki eta abarrak ere. Zentsuratu egin ditzakete, saldu edo ezkutatu. Ba ote gara, oro har, erabiltzaileak horretaz jakitun? Hori kontuan izanda jokatzeko al dugu?

Sarea ez da espazio askea

Euskal gazteek Facebooken duten jarrera aztertu duen Koldo Bizkarguenaga soziologoak uste du ezetz, ezer gutxi dakigula partekatzen ditugun edukien baldintza eta jabetzaren inguruan. “Bestela ziur nago hainbat euskal erabiltzailek ez genukeela gure argazki eta informazio pertsonalarekin Facebook bezalako enpresa batek etekin ekonomikoak atera dezan lagunduko”.

Ildo beretik, Interneten egonkortzearekin lilura orokor bat sortu zela dio, oraindik ere mantentzen dena. “Edozer egin, esan edo izateko aukera dagoela hedatu zen, baina sarea ez da espazio askea. Hori azpimarratu beharra dago”. Enpresa pribatuen zein estatuen kontrola nabarmena dela gogorarazten du Bizkarguenagak.

Askea ez den espazio horretan eta enpresa erraldoien artean, badira irabazi asmorik gabe edukiak bildu eta sailkatzeko lana egiten dutenak ere. Artelekuko Audiolab sailak 2005ean martxan jarritako Soinu mapa egitasmoa kasu. Xabier Erkiziak zuzenduta, Euskal Herri osoko soinu-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatzeko dituzte soinumapa.net helbidetan. Norberak bere ekarpenekin mapa aberasteko aukera ere badu, eta eduki guztiak Creative Commons lizentzian daude.

“EITB gizarteak mantentzen du eta fruituak gizartearentzat dira, eta horretarako, eskura egon behar dute”
Iñako Gurrutxaga

On-line artxibategia zerbitzu publiko gisa

Ikus-entzuzkoen alorrari begira jarrita aldiz, euskarazko biltegi nagusia EITBko edukia biltzen duen Nahieran plataforma da. 2011n jarri zuten martxan, euren ekoizpenak edozein unetan ikus ahal izateko aukera eskainiz. Baina ez da on-line telebista bat bakarrik, hasieratik izan du 33 urteko lana edonoren eskura jartzeko bokazioa.

Hala dio plataformaren sorrera gidatu zuten Iñako Gurrutxagak. “Niri Nahieran zerbitzu publikoaren ikuspegitik interesatzen zait batez ere, ez kontsumo ikuspegitik. Erakunde hau gizarteak mantentzen du eta fruituak gizartearentzat dira, eta horretarako, eskura egon behar dute”. Zentzu horretan, EITBtik kanpoko euskarazko eta euskal kulturaren inguruko edukiak ere bilduko lituzkeen artxibategia desiragarria litzakeela uste du. BBCk orain urte batzuk martxan jarritako Digital Public Space ekimena aipatzen du adibide gisa.

“Erakunde publiko eta erdi-publikoen edukien biltegi orokorra egitea zen proposamena, dena dokumentatuz, eta ikusgarri jarritz”. Ez du uste ordea proiektu horren lidergoa EITBren esku utzi beharko litzakeenik, susmo txarrak piztuko bailituzke. “Erakunde publikoek esku hartu beharko lukete horretan, eta elkarlana sustatu. Baina lehenengo pausoa da halako plataforma baten beharraz ohartzea; kontzientzia”. Ez du baztertzen Wikipediaren eredura hurbiltzen den egitura horizontalago bat, baina argi du eduki gehien jabetza duten erakundeen eta elkarrean inplikazioa dela ezinbesteko.

Ikusi bai, jaitsi ez

Nahieran egitasmoak hasieratik oso harrera beroa izan zuela dio Gurrutxagak, baina uste du sortutako itxaropenen mailara ez direla iri-

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsosazale.eus

ARRASATE Urriak 10
Amaia antzokia, 17:30

- Eneritz Artetxe Eizagirre
- Haritz Casabañ Píkabea
- Egoitz Eizagirre Aduriz
- Aratz Igartzabal Bidegain
- Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
- Felix Zubia Olaskoaga

ANDOAIN Urriak 11
Bastero kulturegunea, 17:30

- Ibai Esoain Arruti
- Gemma Urteaga Garmendia
- Jokin Uranga Isuskiza
- Antton Fernandez Lasa
- Asier Azpiroz Iztueta
- Unai Gaztelumendi Arandia

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatlan.

Final zortzirenak

Laguntzailea: **ARGIA**



EITBko artxiboa sorkuntzarako nola erabil daitekeen erakutsi zuen Maria Ruidok *ElectroClass* lanarekin.

tsi. Maiz adierazi du edukiak jaisteko modua izango zela, baina gaur gaurkoz, ez dago horretarako aukerarik. “Beti dago jabetza-eskubideren bat, musika dela, gidoia dela... Ez dugu asmatu oztopo juridiko horiek gainditzen”.

Hala ere, espero du epe ertainean ahalbidetuko dutela hezkuntzan erabiltzeko baliagarriak diren edukien deskarga. “Pauso hori lehenago edo geroago emango da, ondorio juridikoen arriskua gure gain hartu behar badugu ere”. Dena dela, lan nekeza dela aitortzen du: “EITBn gaur egun audientzia datuak kaskarrak dira, eta kosta egiten da bestelako helburuak dituzten proposamenak onartzea”.

Berrerabilpena: hitz beldurgarri hori

Diru publikoarekin ekoiztako edukiak jaisteko moduan jartzea zaila eta ez-ohikoa bada, are da nekezagoa nahi bezala berrerabiltzeko aukera uztea. “EITBn, eta oro har sektorean, aukera hori aipatze hutsarekin larritu egiten da jendea”. Kultura ulertzeko moduari dago-kion zerbait dela uste du Gurrutxagak, eta bide asko egin beharko dela halakoekin beldurtzen den jendea limurtu ahal izateko. “Diru publikoarekin egindako zerbait, eta jada zabaldu dena, zergatik ez da izango baliagarria beste zerbait sortzeko?”

Beldur horren jatorria edukia kontrolatu nahia dela dio, baina, gaur egun, zentzugabetzat jotzen du nahi hori. “Azken finean, berrerabilpena zure edukia hedatzeko modu

bikaina da. Zuk sortutako edukiak bizirik jarraitzen duen seinale. Harro egoteko modukoa izan behar luke”.

Zinemaren historian ez dira falta beste iturri batzuetatik lortutako irudiak erabili eta berrantolatuz sortutako ikus-entzunezko lanak. Baina gehiegi urrundu gabe ere, EIT-Bren artxiboak sormenerako izan dezakeen balioa frogatua du Maria Ruido artista galiziarrak 2011n plazaratutako *ElectroClass* lanarekin. 30 urtean pilatutako irudiak bilduz Bilboko hiriaren eta langileriaren bilakaeran telebistak izandako eraginaz mintzo da bertan. Gurrutxagaren ustetan, lan horren emaitza bai, baina prozesua bera ez zen eredu-garria izan, ekoiztetxe batekin proiektu bat aurkeztu eta baimena eskatu behar izan baitzuen. “Nik ez nioke hori eskatuko eduki publikoa erabili nahi duenari. Edonork izan behar luke horretarako aukera”.


Gurrutxagak aitortzen du Nahieran ez dela oraindik berak nahi lukeena, baina baikorra da aurrera begira jarriz gero. Kudeaketa erraztuko duen plataforma propioa ari dira garatzen, eta Brightcove etxearen zerbitzua erabiltzeari utziko diote hala. “Gaur egun edukiera mugatua dugu, eta ezin dugu artxibo osoa igo. Plataforma berriarekin aldiz, gure zerbitzarietan egongo da dena, eta errazagoa izango da jaisteko aukera eskaintzea ere”.

Berrerabilpenarena aldiz, eztabaida zabalago baten parte dela dio, eta ziur asko, gehiago itxaron beharko du. ■

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

Alberdi



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.eus

www.argia.eus/denda/makilak



63 DONOSTIA ZINEMALDIA

Islandiako lezioa

400 URTEREN ONDOREN euskaldunak hiltzea legez kanpokotzat jo zuten Islandian aurtengo apirilean. Ez da brometako kontua, 1615ean baleazale gipuzkoarrak garbitzeko emandako patenteak indarrean jarraitzen zuen lurrun-makina, produkzio-harreman kapitalistak eta Guggenheim museoa asmatzen zituzten bitartean. Total, orain islandiarrek ez gaituztela jo eta akabatu nahi eta borondate oneko keinu horri erantzunez edo, aurtengo Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra irla horretara joango dela.

Rúnar Rúnarsson zuzendariak harridura aurpegiarekin altxa zuen molusko preziatua larunbateko ekitaldian: *Sparrows* film intimista irabazle. Itxuraz oso istorio lokala; tematikari begiratu gero, guztiz unibertsala: banandutako gurasoak, alkoholismoa, helduleku emozionalen falta, belaunaldi-talka, heldu izaten hastea, maskulinitatea ulertzeko moduak... Ekoizpen txikia dela seinatu dute eta egia da. Baina beste jolas dibertigarrietan ez bezala, zeluloidearekin zerikusia duen honetan tamainak ez du hainbeste inporta. Bost axola 320.000 hitzunek bakarrik darabilten hizkuntza batean errodatu izana ere, Islandia konplexurik gabe ateratzen da mundura bere musikari, idazle, zinemagile eta artistekin.

Kataluniaren inbidiaz pasatzen dugun denboraren erdia iparrera begiratzeko prismatikoak lortzen inbertituko bagenu, agian kulturalki herri aberatsagoa ginatke. Saiatzegatik ez gaituzte hilko behintzat. Hiltzen bagaituzte ere, legez kanpoko da orain eta, gaitzerdi.

Maskortuta

Diskisizio historiko-politiko-kultural honen zergatiaz galdetuko duzue artikularen puntu honetaraino agoantatu duzenok, ustez hemen Zinemaldiko palmaresa komentatzeko baikeuden. Kontua da, gainontzeko sari batzuk aurreikusteko modukoak iruditu zaizkigula, batez ere *Truman* filmaren ia pisu guz-




Sparrows film islandiarrak lortu du Donostiako saririk garrantzitsuenaren.

tiari eutsi dioten protagonistek *ex aequo* jaso duten Zilarrezko Maskorra –Ricardo Darin eta Javier Camara–. Baita *El rey de La Habana*ko Yordanka Ariosarena ere, gainantzezpena gorabehera, festibaleko gezurmendietan saria jaso zezaketen aktoreen kineletan agertzen baitzen.

Erabaki eztabaidagarriagoak ere hartu ditu Paprika Steen buru izan duen epaimahaiak. Ez dut uste *Les chevaliers blancs* gidatu duen Joachim Lafosse izan denik Sail Ofizialeko zuzendaririk onena –klasikorro jarriko naiz eta Terence Daviesek atal honetan errekonozimenduren bat merezi zuela esango dut–. Ez dut uste, halaber, *21 nuits avec Pattie* gidatzen onenaren saria merezi zuenik. Eta *Evolution*ek lortu duen argazki onenaren saria berdin izan zitekeen Asier Altunaren *Amamarentzat* –euskal film onenaren Irizar sariarekin konformatu behar izan du– edo lehiatu diren beste lauzpabost lanentzat, aurtengo filmetan argazkia erdipurdiko tonuaren gainetik egon baita.

Sariak gorabehera, aretoetan hain erraz ikusi ezin diren filmekin gozatzeko –eta sufritzeko– parada da Zinemaldia. Astebetez pelikulak erdigunean jartzen dituen eztabaida kolektiboa. Eta horren balio kulturala ez da gutxieteko modukoa. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena



Zine lokala, zine globala

BASERRI MUNDUA ez ote den oso gurea, oso lokala, atzerriko begiradatik ondo ulertzeko. Zalantza hori agertu du zenbaitek Asier Altunaren *Amama* filma dela-eta. Ziurrenik, euskal kulturari eta imajinarioari lotuta pelikularik dituen erreferentzi guztiak ez ditu deszifratuko kanpotarrak –“etxeko” hainbatek ere ez–, baina erraz asko hautemango du sakoneko gaia, iraganeko mundu tradizionalaren eta egungoaren arteko talka; lokalak asko izan ohi duelako unibertsaletik.

Horren isla, Donostiako Zinemaldiko aurtengo publikoaren kuttunak. Hirokazu Koreeda zuzendariaren *Umimachi Diary/Our Little Sister* filmak lortu du ikusleen puntuaketarik altuena, familiaren gai unibertsala oinarri, gizarte eta kultura japoniarraren klabeetan narratua. Bide batez, gogora dezagun duela bi urte Kore-edak berak irabazi zuela Publikoaren Saria Donostian, orduan ere familiari buruzko istorio hunkigarri batekin: *Sosbite chichi ni naur/Like Father, Like Son*. Kurioski, publikoak bozkatutako Film Europarraren Saria, ikuspegi europarretik erabat aldentua dagoen *Shan He Gu Ren/Mountains May Depart* txinatarrak irabazi du –nahiz eta tartean ekoizpen frantziarra izan–. Melodrama atipiko honetan, gaztaroko amets zapuztuez hitz egiten zaigu, baina Txinako gizartearen bilakaera eta erretratua ere ditu hizpide.

Lokala eta globala da, halaber, ikusleen bigarren bozkatuena: *Me and Earl and The Dying Girl*. AEBetako institutu tipikoko ikasle tipikoa du protagonista, filmaren abiapuntua yankia da erabat, baina kapaz da Donostiako publikoa dibertitu eta hunkitzeko, laguntasuna, harreman sozialak eta nerabezaroa bezalako gaiak jorratzeko duen moduagatik.

Ba al dago lokala ez den –erreferente jakin batzuei erantzuten ez dien– istoriorik? Aldi berean unibertsala ez denik? Egin al daiteke guztiz deserrotutako zinemarik edo guztiz gai esportaezinak lantzen dituen pelikularik? Garai eta leku zehatzetara eraman gaitu Zine-



Kore-edaren *Umimachi Diary/Our Little Sister* (goian) eta Zhang-ke zuzendariaren *Shan He Gu Ren/Mountains May Depart* pelikularik saritu dituen publikoak.


maldi honek, eta interesgarria izan da emaitza: Irango Gobernuaren errepresiopean bizi den jendartea pantailaratu du *Taxi Tébéran* xumeak, diktadura osteko Argentinara eraman gaitu *El clan* indartsuak, Alemania naziko kontzentrazio esparrura bidaiatu dugu *Son of Saul* film bikainean, 60ko hamarkadako Hollywoodean murgildu gaitu *Hitchcock/Truffaut* dokumental ederrak.

Globalizazio homogeneizatzaile eta uniformizatzailearen aldean, tokian tokiko kultura eta gizartearen ezagutarazteko, ulertzeko eta konplexurik gabe globalizatze (ere) balio beza zinema onak. ■

Helduen literatura

Beltzuria
Ixiar Rozas

Pamiela, 2014



Ahotsa ahoratuz

HARI GORRI DESBERDINAK erabili ditu Rozasek ohiko moldeetatik ihesi lan experimental hau ehun-tzeko. Irakurlearekin, intermitenteki, solasean aritu da, idazketa eta irakurketa prozesua partekatuz. Hortaz, elkarrekin egingo duzue bidea, plazer baduzue, *Beltzuria* liburuan.

Ahotsari buruzko gogoeta egiten du bertan idazleak. Hitzarekin batera doan osagai fisikoari erreparatu nahi dio, gorputza eta mugimendua direnak azpimarratu nahi ditu, pertsona bakoitzaren ezaugarri propioari arreta eskaini, bakantasun horren gainean fokua ezarri, eta beste pertsona, gorputz eta ahotsekin duen hartu-emanaz aztertu. Hori behar duen arnasa emanaz eta dagokion espazioa eskainiz egin nahi du. Ohi ez dugun bezala.

Hitzetatik, esanahietatik, literaturatik harago joan nahi du lan honekin. Letrak irudiekin eta haragiarekin kontaktuan jarri nahi ditu, elkar ukituz, ideiak mamituz. Horren adibide ditugu liburu honen azala eta kontrazala, egituraketa, maketazioa. Letrekin batera letren kokapena eta itxura dauzkagu, kolore zuria eta beltzaren arteko konbinazioak, puntu jarraien presentzia absentiak irudikatzen, eta puntuok osatutako lerroak elkarrekin dantzan.

Zentzumen guztiekin irakurtzeko gonbitea egiten digu egileak. Begiradaren laguntzaz irakurtzeaz gain hitz batzuk ahoz gora irakurriko ditugu tarteka, irudi eta oroitzapen batzuekin itsasoa eta basoa

entzun eta usainduko ditugu, eta orriak pasatzean, oharrak irakurtzera joatean, aurreko atal batera bueltatzean edota liburua utzi eta berriro hartzean, eskuekin ere parte hartuko dugu bidaiari honetan.

Beste hari gorri nagusi bat memoriaren zuloak dira. Falta diren gauzen bila dabil testuko ahots gidaria. Desagertutako hitzen eta ahotsen atzetik orriotan zehar. Poesia eta performatibitatearen laguntzaz chizan doa, zenbait hitz, irudi eta oroimen berreskuratuz. Kartografia afektibo bat osatzen du bere Xamui aitaxi eta Lina amatxiren arrastoen bila: “Orainari biziraupen aukera bat ematen saiatzeko” ahaleginean.

Hauskortasuna eta indarra topatzen ditu ahotsean, eta isiltasunean. Hildakoen eta bizidunen arteko harremanaz ari da, errealtatea memoria eta ametsekin zelan osatzen dugun erakutsiz, gorputzeko ertzetan itsatsita geratzen diren irudien ziztadak bilduz eta elkarrekin josiz.

Beltzuria hitza erreskatatu du Rozasek lan honetan, gorputza gabela gogoratu eta azpimarratu, ahotsearen berezitasunak agerian utzi espazio politikoa dela azalduz, maite ditugunak hiltzean gurekin nola geratzen diren eta zein leku egiten diegun hausnarrarazi digu, eta eguneroko erritmo bizkorra jaistera behartu gaitu, irakurketaren unea soseguz eta kontzienteki esperimendu ahal izateko. ■

Amaia Alvarez Uria



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com





Hurrengoan bai
Puto Amoak Matematiketan
Autoekoizpena, 2015

Ez itxaron hurrengoari, tren honekin jolastu

EZ DAGO JENDE ASKO matematiketan putoamoa denik, gutxiago hala dela agurtzeko unean bertan aitortzen duenik; eta are gutxiago, gaur egungo garaietan, sistema binarioa errebindikatu eta uneoro jolasteko baliatzen duenik. Izan ere, bada oraindik zenbakiei, musikari, laguntasunari eta eguneroko bizitzari, kopuru totalari erreparatu gabe, zukua ateratzen ahalegindu eta lortzen duenik; esaterako, seigarren diskoa erditu berri duen Ermuako lagun taldea. Soseguz, gozatuz, alferrik estutu gabe eta, era berean, disfrutatuta onena emanez 15 urte darama indarrean taldeak. Laukoteak izan duen aldaketa bakarra da 5 lana kaleratu aurretik Iker Saenz de Zaitegik (Kokein) taldea utzi eta Jokin Azpiazuk (Okerreko) ordezkatu izana. Oraingoan crowdfunding formula baliatu dute eta oraindik ere bada haiekin bat egiteko aukera. Taldekideak oso esker onekoak dira. Horren adibide, irailaren 26an taldea babestu dutenei haien herrian oparitu zieten kontzertu irudimentsua.

Komiki estiloko azal soil eta txukunean bildutako lan honetan hamaika kantu batu dituzte, oraingoan ere estilo, sonoritate, tonu, abeslari eta hitz egile batetik bestera etengabe saltoka, baina beti guztia etxean bertan eginez. Horren barne, jakina, grabazio lan aparta, hamarkadako eskarmentua duen Carlos Balseiro *Kubanakhan* taldekidearen ardura-pean.

Aurreko diskoan ez bezala –sartu berria zelako– Azpiazu partaide gazteenak kantuen konposizioan



ere parte hartu du eta berak idatzitako hitzek ematen diote, esaterako, hasiera diskoari. Asko gustatu zait *Bi beren* eta aulkira iltzatuta utzi nau pop-aren agindutara jarritako new-wave eta emoaren arteko sonoritate hain landuak, Monochrome eta El Desván del Macho taldeek parrandan landu ahal zitzaketanak. Orokorrean, gitarrek, teklatuek eta giroek asko dute dagoeneko new ez garenok berbaigai dugun new wave-etik.

Diskoak aurrera egiten du eta taldearen saihestezinoko patroieta bat da pop-rockarenganako zaletasun sutsua: bizi-bizia (*Laranja azala*), rockarekin ondua (*Funtsa*), gardentasunaren eta bi ahotsen maitaleak ere badirela aitortzekoa (*Y casi*), olatuak daudenean noise-pop-aren iratxo jostariekin batera itsasoratze-ko modukoa (*Wine with the surfer*), Ama Sayrekin senidetu eta mozketak gogorrak dituen (*Laranja azala*) eta kanperak jantzita errepideko hard-hautsa ere maitatzen dakiena (*Kea errepidean*), besteak beste. Horrez gain, punk-rocka egiteaz aspaldi aspertu baziren ere, izan zuenak beti izango duela esamoldea borobilduz, *Movido por impulsos* gaztelaniazko kantu bakarra garratza eta erraiekakoa da oso; *Ezjakin aberrian* gustuko dituzten koloreen paleta maisutasunez zeharkatzen dute; eta *Alone ez da lonely* iluntasuna, rocka eta tempo pausatua batzen dituen no-hit! txundigarria da, besteak beste. ■

Iker Barandiaran

Nola jaso hazia

NOLA JASO ETA IRAUNARAZI behar da hazia? Makina bat aldiz entzundako galdera. Hazia bildu ondorengo lanek lanak ematen dizkigute.

Udazkenean sartuta eta sasoi berriaren udaberria begi-bistatik urrun, hazien aroa da. Haziari sasoiari, landare berri bat emateko indarrean nola eutsi da kakoa. Naturalena, landareak fruituaren barruan hazia heldutasunera eramanean, orduantxe bertan ereitea litzateke. Naturan etengabe gertatzen dena horixe da. Fruitua heldu, usteldu eta hazia lurrari emanez haziari lurra eman.

Gure paisaia natural izatetik urrun dagoenez, hau da, dena kulturala denez, geuk ereiten eta behar dena egiten dugulako, haziaren bide natural hori eten egiten dugu.

Etete horrek gorabeherak sortuko ditu hazian. Hasieran haziari bere horretan kieto eutsi nahiko diogu, mugitu gabe, ernatu gabe. Urte batzuetan eutsi beharra ere, litekeena. Horretarako, haziaren garapena geldituko duten baldintzak baliatu beharko ditugu.



LA INDIANA

Haziak ernatu eta bereari eutsi eta landarea sortzeko, zer behar du? Argia, temperatura epela eta ura. Bada, gure lana horiek kentzea da.

Hezetasuna ahal den neurrian kendu egin behar diogu. Ondo lehortu. Ontzi edo poltsatxo batean sartu eta hezetasunaren beldur bagara, sutauts edo klarion hauts artean jaso. Hauts horrek bereganatuko du ur arrastorik txikiena ere.

Temperaturak ere badu zeresanik. Hotzetan eutsi behar zaio

haziari. Haziak pentsatu behar du neguan dagoela, ez dela ernatzeko sasoiari. Hortik hotza eman beharra.

Argirik ikustea ez zaio komeni. Ilunpea ere neguarekin lotzen du, eta amu horri heltzea komeni zaigu.

Ernatzeko garaian, hori dena irauli behar da, negutik udaberrira igaro dela sentitu behar du haziak: hotzetik epelera, ilunpetik argitara eta lehorretik bustira. Hori da kakoa: negua sentitu eta gero udaberria aditu eta igarri. ■

3 edo 4

Laster da hemen azarora, hazi aroa, hazila. Azarora beti lotu izan dut marrubiekin (*Fragaria vesca*). Marrubi landarea eskasa da. Urte gutxian pattaltzen da, eta gero eta fruitu gutxiago ematen du.

Marrubiak badu, ordea, ugaltzeko joera xelebre bat: herrestadarrak luzatzen ditu zurtoinaren oinetik. Lur gainean luzatzen dira, mehe-mehe, eta sustraiak eman eta itsatsi, landaretxo berriak sortuz.

Landare gazte sasoiari horiek azaroran aldatzen dira. Horretarako, lur berria jartzea komeni da: oparo emango du, eta amak zituen gaitzak uxatuko dira.

Lurrean edo ontziren batean, berdin da: poto, lata, lorontzi...

Hiru edo lau urtetik behin erabat berri behar marrubitegia... ■



JAKOBA ERREKONDO

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Elixabete Garmendia Lasa, kazetaria:
“Baratzeari buruzko ikuspegi poliedrikoa eskaintzen du”

Baratzeari baino lehen etxe barruko landareei heldu zien Jakobak liburugintzan. 1995ean argitaratu zuen Elhuyarrekin *Etxe barruko landareak* eta garaitsu hartan hasiko zen ARGIAN eta Euskadi Irratian kolaboratzen.

Izeba landare zale guztiei oparitu nien nik liburu hura: behingoz euskaraz gai funtzional bat, dibulgaziorako tonuan, polita eta erakarria mamiz eta azalez... Nire liburutegiko apaletan sekula ezkutatzen ez zaidan alea da, eta ez juxtu asko erabiltzen dudalako –barruko landare bakarra daukat eta oso autonomoa da–, ikuste hutsak bizipoza ematen didalako baizik.

Liburu haren ezaugarriak areagotu egin ditu Errekondok oraingon: hasteko, edukiei didaktikotasuna darie, didaktikotasun ez paternalista; liburuaren estetika aparta da, bereziki diseinuan eta maketazioan (Iñaki Eizagirreren kontura); eta jarduna alderdi teknikoan agortu gabe, baratzeari buruzko ikuspegi poliedrikoa eskaintzen du egileak, batez ere han-hemenka txertatu dituen poema eta testuekin (Artze, Koldo Izagirre, Xabier Montoia, Alejandro Tapia Perurena...). Perrexilik ere landatuko ez dugunok –ere– zukua ateratzen diogula, alegia.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €
 ☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus
 Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.

@bizibaratzea · Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Ondorengo hitzorduek:

Urriak 2
Zizurkil goia

Iriarte kultur etxea, 19:00etan.

Urriak 3
Barakaldo (BEC)

Bio-Cultura azokan, 16:00etan.

Urriak 4
Usurbil

Kilometroak 2015en ibilbidean, Baratze Parkean.

Urriak 6
Larrabetzu

Angulerin, 19:00etan.

Urriak 7
Lasarte-Oria

Lekuona kultur etxean, 18:30ean.

Urriak 8
Portugalete

Santa Klara Kulturgunean (Casilda Iturrizar, 10), 19:30ean.


ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.eus

☎ 943 371 545

Gurutzegrama



Sudokuak

Erraza

	3	8	9		2		4	
	6		4				5	
		4	6		1		9	7
			1	2	3			9
		2				3		
3			5	7	4			
1	9		2		8	7		
	8				9		6	
	4		7		5	9	2	

Zaila

			3	9	7	1	5	
1					8			9
		9		5			7	
						6		2
	9	1		2		7	8	
2		4						
	5			1		9		
9			2					1
	1	2	8	3	9			

Ezker-eskuin:



1. Esku bakoitzean bost ditugu. Borondatez, nahita. 2. Adineko. Plutonioaren ikurra. 3. Zein tokitan. Iraupen. 4. Zurrutada. ... A4, paper tamaina. 5. Azken eta bigarren bokalak. Zapatak. Zuhaitz mota. 6. **Argazkian**. Txori kantaria, Euskal Herrian udazkenean talde ugarietan agertzen dena. 7. Landare mota. Arabako. 8. Salbu. Kokoriko jarri.

Goitik behera:

1. Nork bere burua handiesteko joera, handiuste. 2. Kemena, balorea. 3. Likidoak edukitzeko ontzia. Nafarroako herria. 4. Zinkaren ikurra. Jantzi mota (pl). 5. Agur. 6. Desirak, nahiak. Berkelioaren ikurra. 7. Egokia. Antzetsu, gaitu. 8. Udak. 9. Betaurrekoak saltzen dituzten denda. 10. Zeukan. Presio-unitate. 11. Zuntz. 12. Barazki hostotsuak. 13. Iloba (Bizkaian). 14. Norentzat atzizkia. 15. Oinetakoen azpialde.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Berba, elea	H I T Z A
Bukatu, agortu	
Galdera	
Tindatzeko gai	
Musika	
Osasuntsu	
Bidexka	
Eutsi, jasan	
Zeru, izartegi	
Hagin	
Hodei gabeko zeru	
Eroa	
Naro	O P A R O

Soluzioak

ESAEERA ZAHARRA:

“Bistak poz ematen, hortzean edo joatean”.

ANAGRAMAK:

HITZA
AHITU
ITAN
TINDU
DOINU
ZINDO
IROZO
ORZI
HORTZ
ZOHAR
ZOROA
OPARO

Erraza

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Harz, Gogoz 2. Adindun, Pu 3. Non, Iraute 4. Itzora, Din, 5. Ug, Oskak, Hatz 6. Sauna, Arabozoz, 7. Salbu, Araba 8. Ezk, Kokoratu.

Goitik behera: 1. Hamuste 2. Adorea 3. Tina, Ust 4. Zin, Gonak 5. Diosa 6. Gurak, Bk 7. Ona, Iato 8. Udak 9. Oputa 10. Zuen, Bar 11. Har, 12. Azak 13. Iloba 14. Tzac 15. Zoru.

Energia berriztagarriek milioika enplegu sor lezakete

IRAILAREN 21EAN Greenpeacek kaleratu zuen txostenaren arabera, energia berriztagarriak, enplegu iturri izateaz gain, energia fosilekin lehiatu daitezke. Berriztagarrien azpiegitura teknologikoa eta energia fosilena antzekoak dira, txostenean esaten den bezala, eta beraz ordezkapena egiteko oinarri erreala dago. Greenpeacek aurkeztutako agertokietako batean, berriztagarriek energia fosila eta nuklearra ordezkatu ditzakete 2050erako.

Bide hori egiteak 1.400 milioi euroko inbertsioa eskatuko luke urtero, baina trukean 2030erako eguzki energiaren inguruan 9,5 milioi lanpostu sortuko lirake, hau da, egun ikatzaren industriak duen beste. Energia colikoak, berriz, 7,8 milioi lanpostu sortuko lituzke, petrolioaren eta gasaren industrietan bi halako.

Txostenak mahai gainean jartzen duen egoera teorikoa errealitate bihurtzeko borondate politikoa besterik ez da behar, Greenpeacearen ustez.

Kontuan hartu behar da une honetan gure energia gastuaren %80 iturri fosilen bidez asetzen dela. ■



Volkswagen: Nafarroako ikur ekonomikoa, AEBetan zigortua

VOLKSWAGENEK iruzur egin du. Ez du AEBetako legedia betetzen emisio kutsatzaileei dagokienez, eta automobilen isurketak neuritzen dituen tresneria manipulatu zuen han saldu ahal izateko.

Antza, 2009 eta 2015 bitartean saldutako 482.000 ibilgailutan egin du iruzurra konpainiak. Isuna jarriko diote seguruenik -16.000 milioi euroraino irits daiteke zigorra-, baina hori baino gehiago ordaindu beharko du Volkswageneke: haren izen ona ez da jada hain ona izango. Galderak berehala datoz: Nafarroan ikur ekonomikoa denari nola eragingo dio horrek? AEBetan iruzurra egin du; eta Europan? Automobilgintza sektoreko iruzurgile bakarra al da? Eta nork salatu du Volkswagen? Beste automobil ekoizle batek akaso? ■



IFCAR

C bitaminak ez du katarroa sendatzen laguntzen

70eko hamarkadan Linus Pauling Nobel saridunak C bitaminaren eta katarroaren arteko erlazioaz idatzi zuenetik, oso zabaldua dago C bitaminaren onurakiko ustea. Haatik, ordutik egindako ikerketa mordoak ez du balio izan balizko erlazio horren frogarik aurkitzeko.

ttiki.com/341582

(Gaztelaniaz)

Omega-3 azidoen eragina desberdina ei da groenlandiarrengan

Hedabideetan etengabe ematen zaigu omega-3 azidoen onuren berri. Horren froga nagusizat jo izan da inuitek, euren dietan ia barazkirik izan ez arren (eta aldiz, omega-3 duten jaki asko hartu arren), oso gaitz kardiobaskular gutxi izaten dituztela. Alta, oso litekeena da azido horiek modu desberdinean metabolizatzea inuiten gorputzean. Haien zatia ona dena, agian besteontzat ez.

ttiki.com/341583

(Gaztelaniaz)

Zeren kontra egingo du talka Merkuriok?

Merkuriok eguzkiaren inguruan egiten duen ibilbideak gorabehera asko ditu. Hainbat ikerlari ari da gaia aztertzen, eta oraindik ez dago behin betiko emaitzarik, baina bai hipotesi batzuk, hala nola Merkuriok eguzkiaren kontra talka egingo duela, edo Artizarraren kontra... edo Lurraren kontra.

ttiki.com/341584

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Remigia Etxarrenen bizitza hari-harian

IRUÑEA, 1853KO APIRILAREN 11. Leona Remigia Etxarren funanbulista jaio zen Nabarrerria auzoan. Aita hil ondoren, Manuela Aranguren ama berriro ezkondu zen, eta handik aurrera Pellejerias kalean bizi zen familia, egungo Jarautan.

Remigia Etxarrenen beste berrikerik ez daukagu 1882ko uztailaren 12ra arte. Egun horretan Iruñeko zezen plazan aritu zen, “Teresy y Velázquez” akrobata konpainiarekin batera. Handik sei egunera, *Lau-burun* –1882tik 1886ra Iruñean argitaratu zen egunkarian– idatzitako kronikak honela zioen: “Deigarria da uztai finkoan eta soka tenkatuan Agostini andereñoak erakusten duen adorea eta segurantzza”. Izan ere, Mademoiselle Agostini zen Etxarrenen izen artistikoa.

Uztailaren 25ean, *Eco de Navarra* egunkariko zuzendari Nicanor Espoz Redinek “artista petoa” eta “punta-puntako orekaria” esaten zion, “oreka-hagan moldatzen diren eta soka gainean dantzan dakiten iruindarrak badaudela” egiaztatuz, harrirituta.

1883ko maiatzean, Manuel Carralen konpainiarekin eta milaka ikusleren parean, Arga ibaia zeharkatu zuen, eta udalak 500 pezeta eman zizkion balentriaren truke. Berriro ere *Lau-buru* egunkariak idatzi zuen ekitaldiaren kronika: “Soka-dantzariak ibilbidetari ekin zion; publikoa isilik geratu zen une batez eta, handik hiru minutura, Agostini lasaitasun osoz iritsi zen beste aldera, lurretik hamar bat metro jarritako soka gainean. Orekariak oinak saskitxo batzuetan sartu zituen eta, oinetako horiek ondo lotuta, ibaia baretasun handiz zeharkatu zuen; bidaia arriskutsuaren amaierara iristeko lau minutu eman zituen. Atsedendaldi laburra egin eta berehala, soka berriro ibili zuen, begietan lotura ipinita eta gerritik gora oihal lodizko zaku batez estalita. Publikoak gogoz egin zion txalo, eta funanbulistak ekitaldia amaitu zuen berriro ibaia zeharkatuz, baina oraingoan mugimendu arriskutsuak eta jarrera zailak eginez”.



Maria Spelterini funanbulista italiarra Niagara ibaia zeharkatzen, 1876an. Gurean, Remigia Etxarrenek antzera zeharkatu zituen, besteak beste, Ibaizabal eta Arga ibaiak.

1884an Gaztelu Plaza zeharkatu zuen, eta zezen plazan ere ikuskizunak eskaini zituen. Honela deskribatu zuen horietako bat *El Eco de Navarra*: “Soka gainean, korazaz eta kaskoz lotuta, suziarik bota zituen, funanbulista suzko euriaren artetik agertzen zen konbinazio ezin hobea lortuz”.

Jaioterriaz gain, Etxarrenek Euskal Herriko nahiz kanpoko hainbat herri ibili zituen eta, besteak beste, Ibaizabal eta Pisuerga ibaiak zeharkatu zituen. 1892ko urriaren 5ean, Ondarroan, aulki baten gainean ariketak egiten ari zela, hamabost metrotik erori zen. 1904an Iruñean bertan eskaintako saio bakana salbu, hantxe amaitu zen haren karrera.

Etxarrenen bizitzaren berri xehe jaso duen Patxi Abasolo historialari nafarrak dio Jauregiko Aldapako 3.ean bizi izan zela azken urteetan; beste iturri batzuen arabera, kale gorrian amaitu zuen. Baina denak bat datoz gauza batean: Mademoiselle Agostini handia miserian hil zen 1921ean. Ordainetan, hori bai, Txantreako kale batek haren izena –benetakoa– du gaur egun. ■


Arrastoak

Antzinako Erromako plano aldazakeen etxea

ERROMAKO zazpi muinoetako batean, Kirinalen, duela 2.600 urteko etxe baten arrastoak aurkitu dituzte, eta etxe horrek orain arte Erromaren egituraz eta hirigintza garapenez uste zena alda dezake.



Aurkikuntzaren garrantzia bi arrazoietan datza, indusketa lanez arduratzen ari den Erromako Kultura Ondasunetarako Superintendentziaren arabera. Batetik, arrastoak oso egoera onean daude; Errepublikaren aurreko garaiko aztarnak nahiko urriak dira Erroman, eta, horregatik, “balio handia dute, egoera honetan aro arkaikoko aztarnak Erromako erdigunean aurkitzen ditugun lehen aldia delako”.

Bestetik, orain arte eremu hori hilobietarako besterik erabiltzen ez zela uste zuten, eta orain badakite bertan jendea bizi zela. “Erromak K.a. VI. eta V. mendeetan izan zuen bilakaera berrikustera behar izan gaitu etxeak”. ■



Kirinal muinoan ezustean aurkitu duten etxea.

IL MESSAGGERO



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat

160 dokumental baino gehiago ikusgai

Anuken egia
 Arrhash, pozoina
 Atotxako ikurrina ezkutua
 Banlieues. Pariseko errebotak
 Bertsoaren aldagelan
 Bidaia Intimoak
 Botilen hilerria
 CAN: Kutxa hutsa
 Debekatuta dago oroitzea
 Egunkaria, hamar urte geroago
 Elburua Gernika
 Erretenak: Y belaunaldia
 Espainiako Polizia Euskal Herrian
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra
 Euskal Selekzioa herri baten ametsa
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat
 Galerna, infernua itsasoan 1912-2012
 Gudari baten egunerokoa

Haizea eta sustraiak
 Hitz Egin
 Ikazkin baten historia
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen
 Iparraldea XXI
 Iparra Hegoa - Errotuz zabaldu
 Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
 Iruña-Veleiako misterioa
 Isilpeko Lana (Inside Job)
 Itoitz hustu arte
 Itsasoren alaba
 Kapitalismoa, maitasun istorio bat
 Kontseiluak 10 urte
 Langile autonomia
 Leku hutsak, hitz beteak
 Lur basatietako bakardadean
 Nabarra Boua eta Matxitxakoko guda
 Nire bizi osoa espetxean

Nömadak Tx
 Oroitarria
 Patio Maravillas
 Perurena
 Pluja seca - Euri lehorra
 Sagarren denbora
 Sahara marathon
 Salda badago
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai
 Selekzio baten ibilbidea
 The Pirate Bay - Teklatutik urrun
 The Yes Men fix the world
 Tortura Euskal Herrian
 Tximeletak, etengabeko metamorfosia
 Zerutik sua dator!
 Zitzadak

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.eus

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*



EDURNE LARRAÑAGA

«Euskararen erabilera eskubidea da eta hori ez da inposatzen, bermatu egiten da»

LABek lan mundua euskalduntzeko LanEus ildo estrategikoa eguneratu du. Urtebetez 150 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte. LABek eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko apustua egin zuen 2000. urtean. Edurne Larrañaga LABeko Euskara idazkariaren hitzetan lan munduan euskara sustatzeko konbentzimendutik sortu da plan estrategikoa.

Testua eta argazkia:

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

Zer da LanEus?

LanEus gure borrokarako plan estrategikoa da. Ez da enpresa jakin batek egiten duen borrokarako eskaintza bat. Euskararen normalizazio prozesu batzuk abiatzea ekarri beharko luke borrokarako bide honek.

Lan munduak euskalduntzeko beharrez segitzen du, beraz.

Etxera begira, euskalduntzeko pauso asko eman ditu LAB sindikatuak, eta barrura begira emandako urrats horiek kanporatu nahi genituen. Sindikatua bera, lan mundua bezala, erdaraz –kasu honetan gaztelaniaz– sortu zen, eta orain horiek euskaratzea da plan estrategikoaren helburua. 2000. urtean sindikatuak kongresuan hizkuntza politika propioa onartu zuen; horrela, euskara sindikatuko hizkuntza ofizial izendatuz.

Zeintzuk dira borroka plan horrek ekarriko dituen berritasun nagusiak?

Ekarri duen berritasun nagusia euskararen normalizazioaren erronka ekintza sindikalaren barruan kokatzea izan da. Lan eskubideen baitan kokatu ditugu hizkuntza eskubideak eta sindikatuak dituen tresna guztiak erabiliko ditugu lan mundua euskalduntzeko: mobilizazioak, negoziazioak, aliantzak...



“Sindikatuan oso harrera positiboa izan du. Egia da, halaber, egikaritzeari begira dugula erronkarik handiena; momentu honetan lurralde guztietan lan harremanak dauden bezala egonik, ez da erraza izango”.

Eta ardatz nagusiak?

Aipatu berri dudana gain, lan mundua euskalduntzea arautzeko prozesu bat egitea; euskararen arnaguneak babestea; euskara inbertsio gisa ikustea; langileei hizkuntza eskubideak aitortzea; eta lan mundua ikuspegi integralarekin ulertzea, derrigorrezko hezkuntzatik hasita.

Krisi garaian hizkuntzaren normalizazioan apustu egiten.

Hizkuntza politika zerbait dinamikoa da, horregatik, gizartearen azterketa batetik abiatu behar dira proposamenak. Guk ikusi genuen egungo krisiaren aitzakian politika neoliberaletan sakontzen ari direla; hori guretzat aukera zein arriskua izan daiteke. Bi eredu daude talkan:

Kapitalarena, hau da, eredu neoliberala sustatu eta lan harremanak erdaraz sustatzen dituen, eta beste aldaketa nahi duena, eskubide sozialen bermean oinarritzen dena. Aldaketa horren baitan kokatzen dugu lan harremanen eraldaketa. Izan ere, dirua eskuz aldatzen da, baina ez da desagertzen. Guk aldarrikatzen duguna da euskara ezin dugula defizitarioa den zerbait bezala ikusi, etorkizuneko inbertsio bezala ikusi behar dugu. Euskara eta lan mundua Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoarekin lotu nahi ditugu.

Prozesu zabalagoaren parte da, beraz, estrategia plana.

Euskal Herrian azken urteotan normalizazio prozesu bat eraiki da eta euskarak ere behar du bere normalizazio prozesua; eta zer esanik ez, lan munduan. Ziurrenik, eremu sozioekonomikoa da une honetan euskararen normalizazioan gutxien aurreratu dena. Bestalde, herri baten garapenerako hizkuntzak duen eragina oso handia da. Hizkuntzek hainbat funtzio dituzte eta horietako bat eremu sozioekonomikoan aritzea da. Azken finean, estrategia nazionala da. Sektore eta lurralde bakoitzak bere erritmoa du, baina egoera soziolinguistikoa konstante hartuta helburua berdina da Euskal Herri guztirako; ezin dugu bestela ulertu, estrategia konfederala da, eragin eremu administratibo eta herri guztietarako baliagarria dena. Gero egikaritzeko orduan federazio bakoitzari dagokio hausnarketa egin eta bere errealitatera egokitzea.

Dena den, erakundeek ere badituzte hizkuntza politikak.

Administrazioetatik ez da benetako hizkuntza politikarik bultzatzen lan munduan. Hizkuntza politikak errealitatea aldatzea ekartzen dute beti, eta horretarako errealitatearen azterketa egin behar da. Kurioso da, euskarak lan munduan bizi duen egoeraren azterketarik ez da egin. Ez behintzat instituzio publikoen aldetik. Norabidea kontuan hartu gabe abiarazten dituzte politikak.

“Kurioso da, euskarak lan munduan bizi duen egoeraren azterketarik ez da egin. Ez behintzat instituzio publikoen aldetik”

Batzuek asko azpimarratzen dute lan munduan hizkuntzaren inposaketa.

Hizkuntza aukera da eta ez inposizioa. Euskararen erabilera guztion eskubidea da, eta hori ez da inposatzen, bermatu egiten da.

Horrelako estrategia bat egikaritzeko hitzarmenek zer garrantzi dute?

Eragin eta aliantza eremu batzuk identifikatu ditugu; elkarlanaren bitartez egin beharko dugu hau guztia. Eragin eremuari dagokionez, sindikatua garen heinean, lan eremuan eragin behar dugu: langileen artean adostasunak lortu behar dira euskararen aldeko jarrera hegemonikoa izan dadin. Bestalde, herri estrategia dugu, burujabetza propio

bezala. Lan mundua euskaratzean akuilu eta motore izan nahi dugu, baina horretarako aliantzan oinarritutako bideak jorratu behar ditugu; bakarrik ezinezkoa da.

Adostasunak baita sindikatu barruan ere. Izan ere, parte hartze prozesu bidez egin duzue plana.

Hasieratik sindikatuaren hausnarketa izatea nahi genuen. 150 pertsona baino gehiagoren iritziak bildu genituen: LABeko kideak, Ernaiko eta Sortuko militanteak, euskalgintzako jendea, norbanakoak... Hainbat modu erabili genituen: aurrez aurreko elkarrizketak, eztabaida taldeak, webgunean eskegi genuen eztabaidarako zirriborroa eta ekarpenak egitekoa... Parte-hartzailea, publikoa eta zabala izan zen prozesua. Dena den, oraindik amaitu gabeko prozesua da, hausnarketa egin dugu, baina orain diseinatutako estrategia praktikan jartzea falta da.

Zer-nolako harrera izan du?

Sindikatuaren barruan oso harrera positiboa izan du, gehienbat denen artean osatua izan delako. Egia da, halaber, egikaritzeari begira dugula erronkarik handiena; momentu honetan lurralde guztietan lan harremanak dauden bezala egonik, ez da erraza izango. Hala ere, guztia gaineratik badago konbentzimendu bat.

Uste dut sindikatu bakarrenetako garelako estrategia definitu bat egin duena. Norabidea zehaztu behar da eta hori da, hain zuzen, instituzio publikoetatik bideratzen diren ekintzen hutsune nagusietako bat. ■



ellauri
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Naturra sentitu



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Lan mundua euskalduntzen: hamar urte ondoren jasotako uztari errepassoa IMHn

ELGOIBARKO Makina Erremintaren Institutuak hamargarren urtez antolatuko du urriaren 7an euskara eta lan mundua uztartzen duen mintegia. Termometroa jarriko diote alor sozioekonomikoa euskalduntzeko prozesuari.

Horretarako hainbat eragilek euren iritzia emango du. Bestiek beste ondokoak izango dira: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkari bat, DanobatGroup, Kontseilua, Laneki, Gaindegia eta IMH bera.

Hezkuntzaren eta lan munduaren artean zubi lana egiten duen ikasgarai garrantzitsuak tokia izango du beste behin, eta horrela,

Lanbide Heziketako Lantokiko prestakuntzan euskararen erabilera sustatzeko Gehitu proiektuaren 3. fasea azalduko dute. Ikasleen gehiengoak eskolan euskaraz ikasi eta lantokietan praktikak egiterakoan euskarari eusteko moduak bilatzen eta aurkitzen ari dira Gehiturren bidez.

Ondoren, enpresak, elkarteak eta aholkulariak garatzen ari diren praktika onak ezagutzeko parada izango da.

IMHren 30+10 mintegiaren antolatzaileak dira: IMH bera, HPS, Gipuzkoako Foru Aldundia, Elgoibarko Udala, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza eta Laneki.

Bahea

Xabier Gartzia Nafarroako AEK-ko koordinatzaileak *Noticias de Navarra* esanak:



“Erronka politikak ditugu Nafarroan. Nafarroako Gobernuan aldaketa eman da eta uste dut hizkuntza politikan aldaketa sakonak eman daitezkeela. Espero dezagun hurrengo lau urte hauetan euskara benetan ofiziala izatea eta normalizazioan aurrerapausoak ematea. Euskaraz bizi nahi dugunok, gure hizkuntza eskubideak bermatuak edukitzea Tuteran, Elizondon edo Nafarroako edozein tokitan. Hasteko zerbitzu publikoetan, eta jarraitzeko, edozein zerbitzutan, izan denda bat edo izan liburutegi bat. Nahi duenak euskaraz egin ahal izatea”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Kapitalismoaren kontrako karabana feminista

EMAKUMEEN MUNDU MARTXAK 1995ean Quebec-en egindako emakumeen martxan du jatorria eta mundu osora 2000. urtean zabaldu zen; orduko hartan Euskal Herriko mugimendu feministak ere parte hartu zuen. Egunotan, IV. Nazioarteko Ekintza egiten ari dira *Gure gorputzak, gure lurraldeak* lelopean. Kapitalismoaren kontrako kutsu nabarmena du oraingoak. Martxoaren 8an irten zen karabana feminista Kurdistandik eta Europar barrena ibiliko da urriaren 17ra arte. Euskal Herrira irailaren 28an iritsi eta urriaren 4ra arte egongo da. Emakumeek ondo dakite euren zapalkuntzaren atzean kapitalismoa dagoela, ez genero edo sexuaren ikuspegitik soilik, baita ekonomiaren arloan ere: langabezia, pobrezia, prekarietatea, diskriminazioa eta desberdintasunak sortzen ditu sistema horrek.

Euskal Herriko mugimendu feministak bizitza oinarrian eta zentroan jarriko duen eredu jasangarriagoaren alde egiten du, alde batera utziz etekinak handitzea baizik bilatzen ez duen merkatuaren logika. Argitarara atera behar dira ohikoan ikusezin bihurtutako lanak, gure egunerokoa zutik mantentzen duten

horiek, eta sistema kapitalista heteropatriarkal honetan ezkatututa daudenak. Lan horiek historikoki emakumeen bizkar utzi izan dira, derrigortuta eta dohainik. Generoa, sistema sozioekonomikoaren aldagarri gisa hartu beharko litzateke, generoen arteko desberdintasuna kapitalismoa oinarritzen den sistemaren ardatz estrukturala baita momentu honetan.

Mugimendu horrek egitura sozial berria sortu nahi du, pertsonengan eta euren behar eta gaitasunengan oinarritua, ez kapitalaren pilaketan eta etekin gosean. Aberastasunaren banaketa bidezkoa, jasangarria eta bideragarria izango luke egitura berriak, oraingo eta geroko pertsona guztientzat bizimodu duina bertutuko lukeena. Ezaugarri horiek dituen karabana feminista eta antikapitalistak elkartasun eta babes osoa merezi du gure herrietatik igarotzen denean, berarekin dakartzan aldarrikapenak nor bere egin eta praktikan jarritz. Horiek konkistatzen lagundu behar dugu.

Juan Mari Arregi

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA

EUSKARAZ



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAREN eskutik.

Beste pauso bat independentziantz

Plebiszitu izaera denek aitortu dioten hauteskundeak independentziaren aldeko indarrek irabazi dituzte: 72 eserlekurekin gehiago osoa eskuratu dute Junts Pel Sí eta CUPEk, eta bototan gutxigatik ez dira heldu %50era. Espainiako gobernuak 'knockeatuta' jarraitzen du, prozesua nola gelditu asmatu ezinik. CUPen igoerarekin eta posizioarekin, ezkerrera egingo du prozesuak ezinbestean, aurrera egiteko giltza baitira.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

PROZESUA BULTZATZEN jarraitzeko agindua jaso dute Junts Pel Sí (JxSí) eta CUPEk. Hurrengo pausoak zehaztuta dauzkate: Konstituzioa idazten hasi eta estatu egiturak prestatu. Horren aurretik, baina, gobernu berria eratu behar dute, eta Masen burua mozten duten ikusi beharko da, CUPEk nahi lukeen bezala. "Ez dago inor soberan, baina Mas ez da ezinbestekoa". iragarri dio Anna Gabriel Sabaték.

Bere jarrera itxiarekin Espainiako Gobernuak independentismoa haizatzen jarraitzen du, emaitzek agerian uzten dutenez. Igandean 1.953.481 boto independentista lortu dituzte, aurreko urteko kontsultan Bai-Bai hautatu zutenak baino gehiago (1.861.753). Orduan 16 urtetik gorakoek bozka zezaketela kontuan hartuta, agerian geratu da Espainiarekin moztu nahi dutenen kopuruak hazten jarraitzen duela. Parte hartzea historikoa izan da eta herritarren %77,44 joan da bozkatzera.

Madrilatik datozen mehatxu eta oztopoak gaudituz, independentismoa garaipenak saltzen ari da bata bestearen atzetik, herritarren egoera animikoan zuzenean eraginez.

JxSí koalizioa izan da irabazle nagusia 62 eserleku eta Kataluniako eskualde guztietan lehen postua eskuratuta. Raül Romeva, Artur

Mas eta Oriol Junquerasek ez dute zalantzarako lekurik utzi. "Agindu demokratiko argia jaso dugu: muntatu diguten kanpainaz gain, jendea beldurrik gabe joan da bozkatzera. Aurrera egingo dugu, baietzak irabazi du".

Legebiltzarrean seigarren indarra den arren, prozesuaren giltza dauka CUP alderdi antikapitalistak. 2012an Legebiltzarrera lehen aldiz aurkeztu zirenean 123.000 boto eskuratu zituzten, eta egun 333.000 lortu dituzte, ordezkariak hirutik hamarrera igaroz. Bañosek Espai-

Legebiltzarrean seigarren indarra den arren, prozesuaren giltza dauka CUP alderdi antikapitalistak

niatik edo Europatik datozen lege guztiak desobeditzera dei egin du, "klase herrikoien aurka badoaz".

Analista politikoen arabera, kanpaina negargarria egin du PPK eta zortzi ordezkari galdu ditu. Unionismoaren makinaria beldurraren diskurtsoa egunetik egunera haizatzen ari zenean, Mariano Rajoy presidentearen hanka sartze mediatiko-

ak puxikaren aurka orratz batek bezala jokatu du. Ustez kataluniarrek independentzia aldarrikatzen badute galduko lituzketen nazionalitatei buruzko "eta europarra?" galdera txiste eta barre iturri izan da azken egunotan. Geroz eta gehiago dira Espainian ere, krisi politiko honen aurrean Rajoyren gidaritzaz auzitan jartzen ari direnak.

Unionismoaren gidaritzaz Ciutadansk hartuko du Printzerrian, emaitzak hirukoiztu baitituzte 25 legebiltzarkide lortuz. Politika zahar eta berriaren arteko dikotomian, esparru diskurtsiboan ongi txertatu dira eskuineko mezu unionistarekin. PPTik, PSCtik eta abstentziotik babes handia jaso dute.

Podemos eta ICVren apostua gaizki atera da: Catalunya Sí Que Es Pot (CSQEP). Espazio politiko honi orain urtebete inkestek 30 eserleku eta Legebiltzarreko bigarren indarra izatea iragartzen bazioten ere, huts egin dute. Iglesiasen alderdiak hautatutako diskurtsoa, prozesuarekiko posizio zehazgabea eta Lluís Rabell hautagai txarra izan daitezke faktore batzuk. ICVk orain hiru urte bakarrik joanda baino hiru legebiltzarkide gutxiago atera ditu Podemosekin. Agerian geratu da orain lau hilabete Barcelona en Comú-k mugitzea lortu zuen jende askok ez diotela babesik eman hau-

Legebiltzar berriaren osaketa


Boto kopurua

ALDERDIA	2015	2012
JxSí	1.617.734	*
C's	733.150	274.925
PSC	520.853	523.333
CSQEP	365.480	**
PP	347.775	471.681
CUP	335.747	126.219
Abstentzioa	%34,3	%36,3

* CiU eta ERC bereizita joan ziren, eta oraindik CDC eta UCD elkarrekin zeuden.

** ICV-EuIA bakarrik joan zen. Orain Podemosekin bat eginda.

Osaketa



tagaitza honi. Ada Colaren alderdiak adibidez, 90.000 boto gehiago lortu zituen Bartzelonan CSQEP-ek baino. CUPen epe labur-ertaineko helburua CSQEP mugitzea izan daitekeela sumatzen da. Espainiako hauteskunde orokorrak izango dira neguan, eta ikusi beharko da zer gertatzen den hor. CSQEPen eskaintza Moncloako aldaketa batekin erabat lotuta egon denez, Pablo Iglesiasek ez badu botererik eskuratzeko, CSQEPk posizio politikoa argitu beharko du irekiko den prozesuaren aurrean. Erabakitze eskubidearen aldeko alderdia izanik, Legebiltzarrean lautik hiru egongo dira aldarri honen alde.

PSCk uste baino hobeto eutsi dio, inkestek beherakada handia iragartzen zioten eta azkenean lau diputatu galdu ditu.

UDCren kaleratzea izan da hauteskundeotako gakoetako bat. Hamarkada luzeetan CiUren banean botere kuota esanguratsua izan ostean, Legebiltzarretik kanpo geratu da alderdi nazionalista eskuindarra. Duran i Lleidak kargua alderdiaren esku utzi du.

Hemendik aurrera zer?

Prozesuak aurrera egingo du. Emaizta garrantzitsua zen alderdien indar harremanak finkatu eta estatutugintzaren abiadura finkatzeko,

baina JxSí-k CUPen beharra du. Presidentea eta gobernua negoziatu beharko dituzte. Ikusi beharko da Masen aldeko indarrek zenbaterainoko boterea daukaten, Junts Pel Sí osatzean adostu baitzuten Mas izango zela aurrera jarraituko zuen pertsona. Egoera konplikatu egin zaie emaitza hauekin.

Hala ere, CUPek esan du ez diola Madrili jokorik egingo eta ez duela prozesua blokeatuko, beraz, espero daiteke moduren batean edo bestean bi indar independentistek elkar ulertuko dutela.

Legebiltzarra osatu eta Konstituzioa idazten hasiko dira ondoren. Trantsizio Nazionalerako Aholku Kontseiluaren laguntzaz, estatu egiturak prestatuz joango dira.

Eta Espainiako Gobernu? Ez dago B planik. Aurretik esana zuten bezala, plana ezer ez aldatzea da. Areago, epaitegiak prest daukate Generalitatea geratzen saiatzeko.

Aldaketa nabarmenik ezean, eta ez da espero, epaitegien eta hedabideen bidez Generalitateak eman dezakeen pauso bakoitza blokeatzen saiatuko dira.

Horrek ordea, arrisku handia du. Geroz eta beroagoa da Kataluniako patata. Aspaldi igaro zuten atzera bueltarik gabeko puntua, eta hurrengo erreferenduma irabazteko prest daude, demagun Konstituzioa berresteko antolatzen dutena. Eta orduan bai, bototan ere gehiengo osa eskuetan, berehala independentzia aldarrikatzeko. ■

Barneko sabaia edo pareta estaltzeko teknologia berria

- Kondentsazioa
- Kapilaritatea
- Konfort akustikoa
- Elegantzia
- Diseinua
- Arin eta obra gabe
- Iraunkorra

sabaitek
Sabai tenkatuak
www.sabaitek.com
943 76 3744

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com



Enric Rimbau

◆
KAZETARIA

Agindua argia da

Espainiako hedabideen zalapartaren gaineratik, Kataluniako hauteskunderen emaitza argia da: independentismoak hauteskunderak irabazi ditu. 135 diputatuetatik 72 dira independentistak (62 JxS eta 10 CUP), gehiengo independentista eztabaidaezina, areago kontuan izanda independentismoak aurreko legealdian lortu zituela emaitzarik onenak 24 diputaturekin (21 ERC eta 3 CUP). Orain arte Convergencia inoiz ez da aurkeztu programa independentista zehatz batekin, hori ere gogoratu behar da.

Kanpainen gaiari buruz izan den ikamika guztia kontuan hartuta, beste egi bat ere komeni azpimarratzea: plebisziutaren irakurketa nagusitu da eta, berriz ere, alderdi eta hedabide espainiarren aldetik desitxuratu egin da analisisa.

Botoen %47,8 lortu duen independentismoak besteen aurrean ez duela irabazi azpimarratzen dute, baina ez dute aipatzen “ezetzaren” alderdiek (C’s, PSC-PSOE eta PP) %39 lortu dutela. Ezta ere %11,5ek ez duela botoa eman plebiszitu logika erabiliz, adibidez Catalunya Sí que es Pot-ek (Podemos eta Iniciativa-Ezker Batuaren arteko koalizioa) eta desagertua den Duran Lleidaren UDck. Ezta ere botoen %1,1 legebiltzarretik kanpo diren beste indar batzuek eraman dituztela.

Azpimarratzekoa da plebisziutaren dialektikatik ihes egin nahi izan duten aukerak ezer gutxitan geratu direla, Unió adibidez; edo beren aurreikuspenak oso txiki geratu zaizkiela, adibidez Iniciativa eta Podemosen koalizioari.

Plebiszitu logikak eman dio garaipena C’s-i eta nagusitasuna espainiar nazionalismoan. 25 diputatuekin emaitza hirukoiztu du ia eta jota utzi du PP, hauteskunde orokorren atean oraingo galtzaile handia. PSC-PSOEek ere diputatuak galdu ditu, baina ez du inkestek iragartzen zioten tamainako zartakorik hartu.

Partehartze errekorra egon da eta “ezetzaren” bloke politiko eta mediatikoak kanpaina apokaliptikoa egin du; horrexegatik, emaitza hauekin independentismoak bere proposamenari legitimitatea ematen dion agindu argia jaso du. Hori bai, jasotako emaitzek argi uzten dute prozesu katalanak ezkerreara egiten duela eta bere proposamen sozialak onartu beharko ditu.

Itxaron beharko da atzerriko botoa heldu arte, baina emaitza hauekin Mas lehendakari izendatzea korapilatu egiten da, JxSren 62 diputatuez gain CUParen bat ere beharko baitu horretarako. Eta orain arte CUPEk beti bota du atzera aukera hori. Orain bi indar hauen arteko negoziazioak hasiko dira, une honetan gobernu berria osatzeko dagoen arazorik handiena gainditzeko helburuarekin.

Bi irtenbide besterik ez dira, edo lidergo aldaketa dago edo CUPEk orain arteko irizpidea aldatzen du. Independentisten artean hor da eztabaida hori eta, hala ere, agindua argia da eta prozesuak aurrera jarraitzen du. Espainiako prentsak badu pixka baterako.



Usurbilgo Udala

«Benetako erreferendum bat egiteko agindua atera da hauteskundeetatik»

Batzuen eta besteen posizio hartze publikoak gertatu aurretik, Kataluniako hauteskundeen emaitzen gaineko iritzia eskatu diogu Arturo Puente *El Diario.es* eta *Catalunya plural* agerkarietako kazetariari.

| ARITZ GALARRAGA |

Zein litzateke hauteskunde emaitzen lehen balorazioa?

Independentismoak, bozen %47rekin, gehiengo absolutua ez, baina gehiengo sinplea lortu du. Eta argiki gaintu du mahai gainean dauden aukera nazional anitzetako edozein: autonomia gisa jarraitzea, estatu federal bat egitea, eta abar. Dauden ikusmolde nazional guztien artean, independentismoa da gehiengo duena. Gainera, denboran mantentzen da, gutxienez 2010etik, eta hauteskunde bide egokiak ematen zaizkionean, %50aren inguruan ibili daitekeela erakutsi du.

Zer egiteko legitimazioa ematen du gehiengo horrek?

Nire ustez, benetako erreferendum bat egiteko legitimazioa. Ezin dugu jakin zer bozkatuko lukeen, bi aukera lituzkeen erreferendum batean, hauteskunde hauek plebiszitu izaerakoak ez zirela zioten alderdiak bozkatu dituen jendeak. Ez dugu ideiarik. Ziur dakiguna da 1,8 milioi katalan daudela independentziaren alde. Igandeko bozetatik atera den agindu demokratikoa da: hautsi Espainiako legalitatearekin, egin Kataluniaren baitako legearen arabera erreferendum bat. Bi aukerekin, bai edo ez. Eta azkar egin, jendeak orain dela hiru urtetik eskatzen duelako.

Ahaztuko dugu, beraz, 18 hilabeteen Espainiatik deskonektatzeko plana.

CUPEk ez du hortik joko. Abstenituko balitz ere, Mas ez litzateke presidente izango. Ematen du Mas ez



Arturo Puente kazetariaren ustez Espainiako hauteskundeetatik nekez atera liteke Kataluniako egoera hobe dezakeen ezer.

dela presidente izango. Garailearen porrota izan da zentzu horretan. Independentismoaren garaipena, baina Masen porrot pertsonala.

CUPEk izango du gehiengo parlamentarioaren giltza. Prozesuaren azkartzea ekarriko du horrek?

Gauzak azkar egitea eskatuko dute, atzerakorik ez dituzten neurriak. Oso garrantzitsuak izango dira CUPEk mahai gainean jar ditzakeen kontuak, maila sozialean ere bai, aipatzen ari dira hiritarren erreskatatze plan bat. Orain arte, azken hiru urteetan, CIUK eta ERCK izan dute gehiengoak, eta aurrera eraman dituzten politikak, jar daitezke nahi beste partxe, diru gutxiago zegoela, eta egia da, baina politika antisozialak izan dira, murrizketa politikak.

CUPEk horrekin guztiarekin bukatu nahiko du. Beraz, azkartze bat emango da, eta bi bideetan.

Kataluniako emaitzak ezagututa, zer atera daiteke Espainiako hauteskunde orokorretatik?

Kataluniako gizartearen eskaera nagusiak urrun daude Espainiako gizartearen eskaerengandik. Interesak gero eta gehiago banandu dira. Hala, ez dut uste ezer errealista atera daitekeenik hauteskunde orokorretatik, Kataluniako egoera hobe dezakeenik. Katalanek erakutsi dute bide propio bat jarraitu nahi dutela. Atera daiteke gobernu bat, oso lausoki, erreferendum azkar eta adostu bat egiteko pizgarria izan dezakeena, independentismoa puntu batzuk jaitsaraziko lukeena? Ez dut ikusten.

Estatu mailan soluzio diferenteren bat egongo denik ez du ematen.

Oihartzunik izan dezake hemendik aurrera Katalunian gertatzen denak Euskal Herrian?

Kataluniak irekitzen badu ia segurua den bide propio bat, Euskal Herrian gauzak zailtzen zaizkio EAJri, gaur eguneko egoera eroson jarraitzeko, egokitze forala eta abar. Ireki ahalko litzateke bide bat, berriz osatzeko mapa, estatu independente diferenteen artekoa, konfederazio moduko bat. Baina oso urruneko eszenatokia da, gauza asko pasa beharko lirateke aurretik. Independentismoaren garaipenak, hori bai, gainontzeko agente nazionalak interpelatzen ditu. ■

Ana Belen Montes: Los Cinco kubatarrak benetan sei ziren

Raul Castrok eta Barack Obamak bukatutzat ematean AEBen eta Kubaren arteko gerra hotza, diplomazia berrezarri eta normaltasunerako urratsak abiatuz, batak eta besteak askatu zituzten bere etsaizentzako lanean aritutako espiak. Ez denak, ordea. Texasen dago preso Ana Belen Montes, espioi kualifikatu eta oso berezia: sinetsi egiten du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BIARNOKO MONEIN HERRI TXIKIA honez gero ongi ezagutzen dute Washingtongo Etxe Zurian: Jacqueline Roussie andereak hilero idazten dio gutuna Barack Obamari.

Joan den urtarrilekoan zioen: “Askatasuna maite duten milioika pertsonak bezala, sekulako poza hartu dut jakitean erabaki duzula aske uztea AEBetan hain injustuki espetxeratuta zeuden bost kubatarren arteko azken hirurak. Lehen urrats honek, eta iragarri duzun moduan zuen herrialdearen eta Kubaren arteko harreman diplomatikoak berriro ezartzeak, ireki beharko lukete bi herrialdeon artean errespetuzko aro berri bat. Ziur nago erabaki honek zorion ukitu bat ekarriko ziola zuen familiar urte amaierako jaioan”.

Hilero Obamari idazten dion Jacqueline Roussie –72 urte, matematika irakasle gaur erretretadunaren senar Clauderekin Kubara 2003an egindako bisitan maitemindu zen uharteaz eta hasi zen interesatzen han hain famatuak ziren *Los Cinco* presoez. Haiei laguntzen ahalegindu da geroztik Biarnotik.

Segidan diotso Roussiek Obamari, *Le Grand Soir* gune ezkertiarrean publiko egin duen idatzian: “Gutun honekin, idatzi dizkizudan 74.a delarik, aipatu nahi nizuke beste kasu mingarri bat Kuba eta AEBen

arteko harremani lotua eta isilpean geratzen ari dena: Ana Belen Montes kasua”. 2001ean atxilotu eta, heriotza zigorrari gutxigatik eskapu eginik, 25 urteko kondena ezarri dioten Montes agentearena, Kubaren alde espioitza lana AEBen inteligentzi zerbitzuen barnean goreneko mailan egin zuen emakumearen istorioa da.

Asturiastik joandakoen biloba eta jatorriz Puerto Ricokoa zen mediku militar baten alaba, Alemaniako base militar batean sortu zen 1957an. Virginiako unibertsitatean nazioarteko harremanetan diplomatu ondoren, 28 urterekin sartu zen AEBetako inteligentzia zerbitzu militarrean (Defense Intelligence Agency, DIA). Zazpi urtez analista lanetan arituta, nagusiek La Habanara bidali zuten ordezkaritza diplomatikoaren baitan, militar kubanoen antolamendua aztertzerako. Beranduago, 1998an Joan Paulo II. aita santua Kubara joan zenean, han zebilen ezkutuko lanean Montes.

Berataz orain batzuek dioten arren Montes hasieratik ari zela kubatarren alde lanean, 1985etik, atxilotu aurreko urteetan DIAren Kubari buruzko analista nagusia zen. Eliteko agente askok bezala poligrafoaren frogak gainditu behar izan zuen zenbait egoera susmagarritan, eta lortu zuen. Familia ere

Defense Intelligence Agency (DIA) agenzia bere garaian zabalduko irudi handiak erakusten du Ana Belen Montes bere lan onagatiko sari bat jasotzen, orduan CIAren zuzendari zen George Teneten eskutik. Irudi txikian Montes kasua ikertu zuen kontrainteligenziako agente Scott W. Carmichaelen plazaratutako liburuaren azala, espetxeratu zutenean Montesi egindako argazkiarekin. *Benetako fededuna* da liburuaren titulua, eta gaineko titulu txikiak dio: “Ana Montes, Kubaren espia handiena, iker-tu eta atxilotzea barnetik kontatua”. AEBen eta Kubaren arteko giro berriaren barruan, Kubak askatu du DIAren zeukaten laguntzailea saldu zuen agente sekretu kubatarra; aldez yankiek ez dute askatu Montes. Bestalde, 2009tik espetxean dago Walter Kendall Myers funtzionarioa ere, 30 urtez Atzerri Ministeritzan kubatarren alde espioitzan aritu izanagatik bizi osorako kondenatuta.

arras fidatzekoa du: Tito eta Lucy bi neba-arrebak FBIari ari dira. Mutil-lagun ohia ere DIAko agentea zuen.

Bitartean, epaiketaren demonstratutzat geratu zenez, espioitzako nobela klasikoetakoekin parekatzeko moduko lana ari zen burutzen Montes. Bere goi kargutik kontrolatzen zituen bai AEBek Kuban zeukatzen agente eta sareak eta bai yankiek zekiten kubatarrek AEBetan zeukatzen agenteez. La Habanako bere kontaktuekin telefono publikoetatik eta irratiz komunikatzen zen informazioa pasatzeko.

Montes izan omen zen, diote, kubatarrei zehaztu ziena El Salvadorren armada yankiak non zeukan base militar klandestino bat; ondoren gerrillari salvadortarrek eraso omen zuten base hori.

Espia fededuna

Kontrainteligenziako agente Scott W. Carmichaeli eman zioten DIAtik Montesi buruzko susmoak argitze-ko lana eta 2001eko irailaren 20an atxilotu zuten Montes. Epaiketa eta kondenaren ondoren, Carmichaelen liburuak idatzi zuen orain arte kubatarrek AEBetan eduki duten espia kualifikatuaren bere bertsioa emanez.

Adierazgarria da ipini zion tituluak: *True Believer*, euskaraz Beneta-



bizitzeko daukan eskubideak ez du justifikatzen nik lagundu izana Kubari informazio sekretuak eman ez bere burua defenditu ahal izan zezan. Nik soilik esan dezaket egin dudala injustizia larri bat konpontzeko zuzena iruditu zitzaidana”.

Gaur Ana Belen Montes da 25037-016 zenbakidun presoak Carswelleko presondegi militarrean. Psikiatria atalean daukate, nahiz eta berak arazo psikikorik eduki ez. 14 urte pasata, isolamendu osoan daukate. Aita eta senideak ikusi ditzake tarteka, ez beste inor. Debekatuak ditu telefono deiak, prentsa, liburuak, telebista, kanpoko paketeak.

Barack Obamak eta Raul Castrok sinatu dutenean AEBen eta Kubaren arteko harreman diplomatikoak berrezartzea, tratua barruan zihoan espoitzagatik atxilotutakoak askatzea. Yankiek askatu dituzte *Los Cinco* famatuetatik azken hiruak.

Trukean kubanoek libre utzi Alan Gross amerikarra eta kubatar misterioitsu bat, gero jakin dena zela Rolando Sarraff Trujillo, CIAk Kubako zerbitzu sekretuetan infiltratuta zeukan goi kargua. Sarraff Trujilloren lanarekin lortu zuen, antza, CIAk mozorroa kentzea *Los Cinco* famatuiei... eta Ana Belen Montes berari.

2027a arte preso egon behar duen emakumearentzako indultoa eskatuz idatzi dio Obama presidenteari Moneindik Jacqueline Roussiek: “Ana Belen Montes, bere kontzientziari obedituz, nolabait izan da Kubaren eta Estatu Batuen gaurko harreman berrien aitzindaria”. ■

ko Sinestuna edo Egiatz Konbentzituia ipini beharko genukeena. Carmichaelek kopiatu zion Eric Hoffer (1902-1983) filosofoari, honek titulu bera ipini baitzion masa mugimenduen eta lider eta militante politikoen osagai psikologikoa –kausa handi bati zaion sinesmena, norberari kausaren defentsan aritzeak ematen dion segurtasuna– deskribatzen duen obra bati.

Izan ere, bai epaiketa osoan zehar eta bai gero, espetxetik bidali izan dituen gutunetan Ana Belen Montesek erakutsi du ez zuela Kubako aginte sozialistaren aldeko lana egin diruagatik baizik eta kubatarrek beren bide propioa egiteko eskubidea daukatela sinesten zuelako.

Fiskalarekin negoziatu zuen arren heriotza zigorra saihestuz 25 urteko kondena onartzeko, Montesek esan zuen epaiketaren azken hitzean: “Epaile jauna, zure aurrean nago egin dudalako zenbait gauza legerari ez baina nire kontzientziari jarraituz. Gure gobernuaren Kubarekiko politika krudela da eta bidegabea, sakonki erasokorra, eta behar moral bat sentitu dut uhar-teari laguntzeko defenditzen gure gure sistema politikoa eta gure baloreak inposatzeko ahaleginaren kontra”.

Eta aurrerago: “Menturaz moraliki arbuiagarria gerta daiteke Kubarenganako gure politikari erantzuteko nire modua. Agian Kubak presio ekonomiko eta politikoetatik aske



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Hiltzea gaizki egon zen

ETA-K 2011-N jarduera armatua utzi zuenean euskal gizarteko oso sektore zabalek pentsatu zuten bake prozesu bat irekiko zela ondoren. Askok kostako zela, ez zela iraganeko beste aukera batzuetan bezala izango, baina zentzuzko denbora batean etorriko zela. Eta horren ondorioz, Estatuak errepresioari ere jaregingo ziola neurri batean. Makroepaiketa eta kartzelaratzak desaktibatuko zirela, preso gaixo larriak askatuko zituztela, gainerakoak hurbildu, espetxe politika arindu... Baina ez, ezta urrik ere ez. PPK nahiago izan du mendekua eta gatazkaren erabilera politikoa-ekin jarraitzea.

ETAk armak utzi eta EH Bil-duk saria jaso zuen 2011ko hau-teskundeetan. Aktore asko beldur-ten zen emaitzekin, hasi PPTik eta EAJraino. Jadanik zokoratuak eta erdi hondoratuak zirenei saria? PPK argi zuen zer egin, orain arte egin duena: oztopatu eta harri potolo bat utzi euskal gizartearen motxilan, honek gaintik ken-tzen asmatu ez duena.

Eta EAJk? EH Bilduren garaipen hark hegemonia lehia ireki zuen abertzaletasunaren baitan, eta bide horretan EAJk pentsatu zuen arris-kutsua izan zitekeela ezker abertzalearen egiazko bake prozesu baten alde egitea. Eta horrek, Ipar Irlandan bezala, aber-tzaletasunean lidergo aldaketa balekar?

PPren jarrera oztopatzailea izanda, euskal gizartea bake proze-suaren alde tinko aktibatzea izan zitekeen PPren harritzarra desak-tibatzeke modu bakararra. Baina ez da hori egin eta zamarekin jarrai-tzen dugu. Hala izan zedin, ezin-

bestekoa zen –eta da– EH Bildu eta EAJren arteko elkar ulermena, baina bien arteko hegemonia lehiak ez du erraztu jarrera hori.

Ezker abertzale soberanistak, nahi hala ez, preso eta iheslarien zama gainean du prozesuaren hasieratik eta horrek tentsioa sor-tzen dio bere jardunbidean. Zertan zentratu, hegemonia politikoan eta bide soberanistan edo gatazka bide-ratzen? Edo uztartu behar badira, zein estrategia eta aliatuarekin? Gai-nera, nola lotu horiek eguneroko kudeaketarekin, areago hainbat ins-tituziotan agintean denean?

BAKE PROZESUA blokeatuta dago bitartean, potentzialitate gutxiarekin. Zertan oinarritu behar den ere ezin adostuz dabilta aktore nagusiak: PP errepresioan zentratua, PSEk eta EAJk zoru etikoa jarri dute aurrera egiteko baldintza gisa eta ezker abertzaleak ezin du bakarrik tiratu, besteak beste, ezin duelako zoru etiko hori –hiltzea gaizki egon zen– bere horretan onartu.

Hainbat mailako biolentzia politikoak egon dira aurrez aurre eta hori onartzen ez bada nekez eraiki daiteke bake prozesu eraginkorrik


Hiltzea gaizki egon zen, jakina. Eta hiltzea gaizki dago. Atzerako begiradan, nola defenditu liteke aurkakorik? Baina esaldi horrek bere baitan duen konplexutasuna hori baino askoz sakonagoa da eta bake prozesuan baldintza gisa jar-tzea oztopatzailea. Eta indar harremanen ispilu. Ez Aljerren, ez Lizarra Garazin, ez Elkarrik edo Lokarrik bideratutako bake saioe-

tan, ez Loiolan eta ez Aieten, eta ez bestelako inongo saiotan ez da baldintza gisa jarri izan ezker aber-tzaleak onartu behar izatea “hil-tzea gaizki egon zen” hori. Eta une horietan EAJk eta PSOEk berdintsu pentsatzen zuten ETA-ren biolentziaren izaeraz eta iraga-naz, baina ETAk beste indar bat zuen, bai militarra bai politikoa. Hori zen determinantea. Bake prozesuak egin ziren oraineko eta etorkizuneko zoru etikoetan oina-rrituta –ez da gehiago hilko–, ez iraganeko zoru etikoan.

Gatazkaren konponbidea ETA-ren amaiera bada, kito, ez dago askoz gehiago esateko, iragan astean ondo gogorarazi zaigunez. ETAk ez du jada hiltzen, jarrai beza euskal gizarteak bere bizitza-rekin, ahaztu dadila presoekin, makroepaiketekin, atxiloketekin eta Estatuaren biolentziarekin.

Baina gatazka honek sustrai politikoak dituela onartzen bada, bistan da egungo irteera eredu hori guztiz ahula dela, zauria gaiz-ki itxiko dela, sufrimentuak jarraituko duela eta ez dela etorkizuneko bizikidetzarako hazi eraginkorrik ereingo.

Hiltzea gaizki dago, baina 50 urteko gatazka bakarrik ETAREN bortizkeriaren azter-ketan oinarritu behar bada, hori ez da ez egiazkoa, ez jus-tua eta ez eraginkorra. Estatuaren biolentzia legezkoa eta ez legezkoa ere hor izan dira. Hainbat izaera eta mailako biolentzia politikoak egon dira aurrez aurre hemen eta hori onartzen ez bada nekez eraiki daiteke bake prozesu eraginkorrik. Mingarria ere izan daiteke hortaz hitz egitea, baina ezinbestekoa etorkizuneko zoru etiko egokia eraikitzeko. ■



argia



ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIAren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleho izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

IRAILEKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babesak eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu:

elikadura burujabetza
ingurumena
EUSKALZALETASUNA
INDEPENDENTZIA
PAREKIDETASUNA
giza eskubideen defentsa
herrien mundua
demokrazia zuzena
oroimen historikoa
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
sexu askapena



Bizi Baratzea liburua
5 opari



Europako herrien mapa
5 opari



Argia kamiseta
5 opari

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com